guaixe.eus

HARTU AURREA ETA EZ GALDU

UDA BIRIBILA

IRLAK
KOSTALDEAK
ZIRKUITUAK EUROPAN

EGIN ERRESERBA ORAIN, ETA BIDAIATU MAIATZAREN 1ETIK URRIAREN 31RA

ETORRI GURE BULEGO BERRIA EZAGUTZERA ETA EGIN ZURE UDAKO ERRESERBAREKIN

ORDUTEGIA: 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

Eskaintza honek sustapenaren barruan daudenhainbat establezimendu eta zirkuitularako balio du (galde iezaguzu). Maiatzaren 01etik urriaren 31ra bidaiatzeko. Galdetu HAURRAK DOAN baldintzei buruz. Erreserba 55 €-tik hasita (ez da itzuliko), egindako depositutik kenduko da gero, norako bakoitzaren ordainketa-baldintzen arabera. Ez daude barne kudeaketa gastuak (erreserba bakoitzeko 10 €). * Galdetu ordaintzeko aukerei buruz eta sustapen hauen baldintzei buruz. PLAZA MUGATUAK.

informazioa eta erreserbak
San Juan, 52, baxua, ALTSASU
948 041 002
halcon60@halcon-viajes.es

Halcon bidaiak

Mezenasgoa, Guaixe fundazioa laguntzeko beste arrazoi bat

Guaixe fundazioak Nafarroako Gobernuak ematen duen **Mekna interes sozialeko izendapena jaso du**. Izendapen hori Kultura Mezenasgoaren Foru Legeak arautzen du. Lege horren helburua da gizartearen parte hartzea sustatzea kultur sektorearen garapenean. Hala, helbide fiskala Nafarroan duten enpresek eta partikularrek herrialdeko kultur garapena babesteko hiru modu eskaintzen ditu, haren truke gobernuak pizgarri fiskalak eskainiz.

Guaixe-ren mezenas izateko hiru bide

- **Dohaitza.** Dirua, ondasunak edo eskubideak ematea, edo zerbitzuak dohainik egitea.
- **Diru ekarpena, ondasunena edo eskubideena, edo zerbitzuak dohainik ematea.** Kultur interesa duten ondasunak, jarduerak egiteko lokalak, kalitatezko artelanak eta beste batzuk dohainik eta aldi baterako lagatzea.
- **Lankidetza hitzarmenak.** Laguntzaileen (ekarpen ekonomikoen egileak) eta onuradunen artean izenpetutako hitzarmena; haren bidez, onuradunek laguntzailearen partaidetza zabaltzeko konpromisoa hartzen dute.
- **Zerga pizgarriak.** Guaixe fundazioari ekarpena egin eta laguntzeagatik, herritarrek eta enpresek zerga-pizgarriak izanen dituzte.
- **Herritarrak.** Egindako diru ekarpenagatik eskubidea izanen duzu errenta aitorpenaren, PFEZaren, **kuotatik %80koa berreskuratzeko dohaintzan emandako lehendabiziko 150 euroetan, eta %40koa gainerako ekarpenetan.**
- **Enpresak.** Enpresek egiten dituzten dohaintzen zenbatekoen kenkaria aplikatuko da sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarrian -oro har, dohaintzak ez dira gastu kengarria- eta kuota likidoaren %30eko kenkaria zergaldi bakoitzean emandako lehenbiziko 300 euroetan, eta %20koa ondoko zenbatekoetan.

Oharrak: Kenketek eta murrizketek ondorioak izateko, ekarpenak frogatu beharko dituzu Guaixen emango dizugun ziurtagiriarekin, eta ondoren Nafarroako Zerga Ogasunari jakinarazi.

Guaixe fundazioa

MEKNA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

SAKANAKO ASTEKARIA • 2016ko apiribilak 22, ostirala • 2. aroa • 549. zenbakia

GUAIXE.EUS
PRES TOKIKOM

Hondakinen kudeaketa eskola tailerra berriro eginen da >>7

Hondakin planean inolako erausketa eredurik ez izatea eskatu dute >>16

Sakanako D ereduko eskolen festa Irurtzunen >>7

Burundar Txistularien kontzertua Altsasun >>21

Zorri Azoka, bueltan >>11

Sakanako Ibilaldi Handirako dena prest >>19

Kamioilariak, Arcelorreko itxierako ahaztuak >>9

Ama Lur azoka Etxarrin >>11

Klinikako langileek "benetako ikerketa" egitea eskatu dute >>9

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke: 3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

Udane eta Iraide
ZORIONAK!! Ongi pasa eta mila muxu!! Etxekoen partez.

Irañetako Juanita eta Timoteo
ZORIONAK urte hauetan sortzen joan zareten familia ikaragarri honengatik ta zuen alaitasuna eta indarrarengatik. Muxu bana!

» Irurtzun

Liburu Eguna Irurtzungo plazara!

Liburuaren Eguna dela eta Atakondoa eskola publikoak egitarau berezia antolatu du. Herenegun Jon Arretxe idazlea eskolan bisitan izan zuten. Hark idatzitako liburuen gainean galderak egin eta kontu gehiago ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek. Gaur, berriz, ikastetxeaz aparte eta Irurtzungo plazak ere hartuko ditu ekitaldiak, 9:30etik 17:00etara.

Ikasleak eta plazara hurbiltzen diren guztiek izanen dute prestatutako egitarauarekin gozatzeko aukera. Izan ere, plazan honako tailerrak izanen dira: orri-markagailuak, hizkuntza anitzeko jokoa, kaligramak eta txotxongiloa. Horrekin batera, liburu trukaketa ere izanen dela iragarri dute. Euria eginen balu Barazki gunean eginen da.

Jarduerak Atakondoa eskolak, Guraso Elkarteak, Itxipuru taldeak, Gizarte Zerbitzuen prebentzio programak eta Mank-eko Immigrazio Zerbitzuak antolatu dituzte.

» Arbizu

Liburuaren Astea Arbizun

Arbizuko udal liburutegiak Liburuaren Astea ospatzen ari da aste honetan. Igandeko lore azokan hasi ziren, liburutegiak postua jarri zuen zerbitzua arbizuarrei gerturatzeko. Liburu bat nola egiten den azaldu zuten Jon Arretxe idazleak, Cristina Fernandez ilustratzaileak eta Asier Beltza Erein argitaletxeko kideak herenegun. Gaur, 18:00etan, Jokin Urainek *Ametsen Liburua* aurkeztuko du liburutegian. Bestalde, Jakoba Errekondok hitzaldia emanen du asteartean, 18:00etan, jubilatu elkartean.

apiribilak 22-28

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Akordeoi kontzertua. Apirilaren 23an, larunbatean, 19:00etan Olatzagutiako kultur etxean. **Pablo Sarasate kontserbatorioko akordeoi ikasleak.**

Urtez urte. Apirilaren 23an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Burundar txistulariak.

Mafalda eta Skabidean. Apirilaren 23an, larunbatean, 22:30ean Altsasuko gaztetxean.

Luziano Show. Apirilaren 23an, larunbatean, 23:59ean Etxarri Aranazko garagardo festan.

Antzerkia

Ezer ez dirudiena. Apirilaren 22an, ostiralean, 18:30ean Ziordiko liburutegian. Patata tropikala.

Mucho Shakespeare. Apirilaren 22an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiako kultur etxean. **Malaje solo.**

Cuando crecen puertas por todas partes. Apirilaren 24an, domekan, 17:00etan Olatzagutiako kultur etxean. Pasadas las 4.

Tren geltokia. Apirilaren 24an, igandean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Zirika Zirkus.**

Ipuin kontalaria

Ipuin kontalaria. Apirilaren 22an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Zinema

El hijo de Saúl. Apirilaren 22an, ostiralean, 21:45ean eta apirilaren 24an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Cien años de perdón. Apirilaren 22an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 24an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Alvin y las ardillas. Apirilaren 24an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

La habitación. Apirilaren 28an, ostegunean, 19.00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Mutiloa-Altsasu. Apirilaren 23an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. 80 km. **Zikloturista taldea.**

Iturgoiengo Trinitatea. Apirilaren 24an, domekan, 7:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 68 km. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Arbizu, barneko urradurak sendabidean. 1936-2016. Apirilaren 24tik maiatzaren 1era Arbizuko Arbizuko udaletxeko batzar gelan.

Joan etorriko bidaiak. Maiatzaren 8ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Txefo Artea Tailerra.**

Hitzaldiak

Erabakitzeko eskubidea eta kultura. Apirilaren 22an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Hizlariak: Juan Jose Ibarretxe, Ainhoa Aznarez, Angel Oiarbide eta Dora Salazar.**

Bizi baratza. Apirilaren 26an, asteartean, 18:00etan Arbizuko jubilatuen elkartean. **Hizlaria: Jakoba Errekondo.**

Independentzia Vs Langabezia eta prekarietatea. Apirilaren 28an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Hizlariak: Jone Etxeberria eta Joseba Permach. Sortu.**

Literatura

Ametsen Liburua. Apirilaren 22an, ostiralean, 18:00etan Arbizuko liburutegian. **Aurkezlea: Jokin Urain.**

Enda (Toti Mtz de Lezea). Apirilaren 28an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Irakurle taldea.**

Mahai-ingurua

Sakanako memoria historikoa. Apirilaren 24an, igandean, 12:00etan Arbizuko udaletxeko batzar gelan.

Tailerrak

II. gazteria plana. Parte hartze tailerra. Apirilaren 22an, ostiralean, 17:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Arakil Kultura eta OGZ Prebentzio Zerbitzua.**

Yoga magikoa. Apirilaren 22tik 24ra, ostiraletik igandera, Arbizuko kanpineko Amari yoga magikoan.

Batukada. Apirilaren 23an eta 24an, larunbatean eta domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. *Aurretik izena eman.*

Azokak

Amalur azoka. Apirilaren 24an, igandean, 10:00etatik aurrera Etxarri Aranatzen.

Bestelakoak

Garagardo festa. Apirilaren 22etik 24ra Etxarri Aranazko karpan.

Ekaitzen epaiketa. Informazio batzarra. Apirilaren 22an, ostiralean, 19:00etan Iturmendiko plazan.

Elkartasun Eguna. Apirilaren 23an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranatzen.

Sakanako D ereduko eskolen festa. Apirilaren24an, igandean, 10:00etatik aurrera Irurtzunen.

Sakanako eskola txikien talde identitatea biltzen duen dokumentuaren aurkezpena. Apirilaren 28an, ostegunean, 18:00etan Lakuntzako kultur etxean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 22an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Epaiketa politikorik ez! Xafan eta Joxe aske! Apirilaren 23an, larunbatean, 20:00etan Etxarri Aranatzen.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 24an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Amiantoak hildako langileei omenaldia. Apirilaren 28an, ostegunean, 20:00etan Altsasuko Foru plazan. **LAB.**

» Arakil / Irurtzun

Gazteria Plana osatzeko deialdia

Gaur, 17:00etan, Irurtzungo kultur etxean bilera izanen da

Nafarroako Gazteriako Institutua II. Gazteria Plana gauzatzeko lehenengo pausoak ematen hasi da. Plana egiteko, Nafarroako gazte guztiei zuzendutako parte hartze prozesua hasi da. Haren helburua da gazteei lotutako hainbat gaien inguruan gazteek beraiek dituzten iritziak jasotzea. 14 eta 30 urte bitarteko gazteen iritziak jasotzeko Nafarroan barna hainbat bilera eginen dira eta horietako bat da gaur Irurtzunen eginen dena.

Gazte arakildarrak eta irurtzundarrak bilerara gonbidatu dituzte, euren ideiak, beharrak, iritziak eta proposamenak entzun eta jaso nahi dituztelako. "Paregabeko aukera da hezkuntza, aisia, enplegua, parte hartzea, generoa eta berdintasuna moduko gaietan gazteriaren egoera hobetzeko hartu daitezkeen neurriak eta ekintzak proposatzeko". Hala adierazi dute Arakilgo Udaleko Kultura Sailetik eta Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Prebentzio Programatik. Gaurko tailerrera joan ezin dutenek Gazteria Institutuak Nafarroako Gobernuaren web orrian jarri duen inkesta bete dezakete.

SAKANA

Ibarreko turismo eskaintzaz Madrilen

Madrilgo Sanchinarro, Las Tablas eta Montecarmeloko toki aldizkariak, Zitus Madridek Sakanako turismo eskaintzari buruzko bi orriko erreportajea argitaratu du apirilean. Jesus Caraballo, Ifemako prentsa arduraduna da erreportajea idatzi duena. Eta Sakanaren turismo eskaintzaren berri estatuko eta Europako turismoan espezializatutako hedabideetan zabaltzeko konpromisoa hartu du.

Caraballoren Sakanarekiko interesaren atzean Gema Urdaniz (Nemesio etxea, Iturmendi) eta Valen Ormazabal (San Pedroko bidea, Altsasu) landetxeen jabeen ekimena dago. Hari ibarraren eskaintzaren sustapenean laguntza eskatu zioten, e-postaz. Aurtengo Fiturren aurrez-aurre egoteko aukera izan zuten, ilbeltzean. Bi burundarrek harremanarekin segitzeko asmoarekin daude.

» Arbizu

Oroimenez Arbizu, 1936ko memoria

"Batzuek udarik ankerrena" deitu zuten hartan, lau arbizuar fusilatuta hil zituzten. 80. urteurrena dela eta hainbat jarduera antolatu dira

Arbizuko Udalean joan den urtean hasi ziren memoria historikoa lantzen. Monika Etxebarria zinegotziak jakinarazi digunez, "ikasturte hasieran kultura batzordea eratu zenean, 80. urteurrenagatik, beharbada aurtengo zeregin nagusia, memoria historikoa izanen zela erabaki genuen". Zinegotziak azaldu duenez, 1979-80an fusilatuen gorpuak Arbizura ekarri zirenetik ez da beste ekitaldi edo omenaldirik egin, 2004ko Oihan ederra aldizkarian argitaratutako artikulu luzea salbu. "Luzeegi iraun duen isiltasuna hausteko garaia zela erabaki genuen. Hasieratik ohartu gara gai delikatua eta tentuz tratatzeko modukoa dela". Horrela abiatu zen Oroimenez Arbizu ekimena.

Herrira mugatutako ekintza xumeak egitea erabaki zuten. Hasteko, "gertaerak ulertzen laguntzeko klabe batzuk" izateko, Xabier Reparazek gerra aurretik Arbizun eta Nafarroan zegoen giroa azaltzen zuen hitzaldia eskaini zuen. Horretaz aparte, 1936ari buruzko bi buletin argitaratu dituzte eta beste bi gehiago aurreikusi dituzte. Horri zinema zikloa gehitu behar zaio. Udal liburutegian, bestalde, 36ko gerrari eta errepresioari buruzko materialak ikusgai jartzeko lanean ari dira. Ikus-entzunezko proiektu bat esku artean dute ere. Eraildakoetako bat zinegotzia zela, udala ekitaldi bat antolatzea aztertzen ari da.

Duela hiru urte Arbizun memoria historikoko beste ariketa bat egin zuten.

Arte erakusketa

Igandean, 11:30ean, udaletxeko batzar gelan jarritako arte erakusketa kolektiboa mustuko da. Aste batez, maiatzaren 1era arte ikusgai izanen da. Pintura, eskultura, taila, bideoa, argazkiak eta instalazioak izanen dira erakusketan. Cristina Fernandezek koordinatu du erakusketa eta artean eta sorkuntzan ari diren arbizuarrek parte hartu dute. Erakusketarekin "hildakoei zor zaien omenaldia egin, garai hura gogora ekarri, eta, zergatik ez, gertatutakoaz hausnarketa egin nahi dugu." Koordinatzaileak dioenez, "arteak ezin ditu zauriak erabat sendatu, baina ukendu baten moduan barneko urradurak sendabidean jar ditzake".

Igandean, 12:00etan, Sakanan memoria historikoa lantzen ari direnekin mahai-ingurua izanen da: Amaia Jauregi eta Josu Imaz, fusilatuen senide eta Altsasu Memorian eta Etxarrikoan aritu direnak eta Uharte Arakilen sortu den taldeko Gaizka Uharte. Gobernuko ordezkari bat ere.

Beste deialdiak

Maiatzaren 7an, larunbatean
Sartagudan omenaldia eginen da eta joateko deialdia egin dute.
Maiatzaren 26an, ostegunean
Gerra gauza alua dun hitzaldia
Hizlaria: Amagoia Gurrutxagak.

SAKANA

Parlamentuak 1936an errepresaliatutako hautetsiak gogoan izan ditu

Nafarroako Parlamentuak 1936ko estatu kolpea eta gero eraildako hautetsien omenezko ekitaldia hartu zuen igandean. Parlamentuko presidenteak, Ainhoa Aznarezek, "eragindako minagatik" barkamena eskatu zuen. "Doilorki eraildako hautetsien ondorengoei gaur arte etxe hau ez zaie zuzendu. 80 urtez hartutako zorra kitatzen dugu". Atzoko ekitaldian ere, Nafarroan 1936an hildako 118 zinegotzi eta 36 alkateen izen zerrenda duen plaka tokiz aldatu eta toki ikusgarriago batean jarri dute, Parlamentuan bertan.

Ekitaldi hunkigarrian hildakoen senideak eta hautetsik izan ziren. Tartean Sakanatik joandakoak: hainbat altsasuarren senideak, memoriaren aldeko ekintzaileak eta Uharte Arakil, Etxarri Aranatz eta Ziordiko alkateak, Ainara Aiestaran, Eneka Maiz eta Patxi Bengoetxea, eta Altsasuko alkate-ordea, Pedro Jimenez, ere izan ziren.

+www.guaixe.eus

Hautetsi sakandarrak

Alkateak: Silverio Astiz Lakuntza (Uharte), Antonino Goikoetxea Otegi (Altsasu) eta Epifanio Gonzalez Villar (Ziordia). Zinegotziak: Pedro Ihabar Lakuntza (Arbizu), Felix Lopez Sanchez (Etxarri), Martin Somocurcio Albistur (Altsasu), Isidro Zornoza de Jorge (Altsasu), Domingo Bados Garcia (Olazti) eta Ramon Goikoetxea Etxeberria (Ziordia).

astekoa

Marian Mendiola Barandalla

Irakurzaletasunaren ahotsak, jakin-gosea pizten

Makina bat ekimen ditugu gurean irakurketa ohiturak sustatzeko eta bultzatzeko; irakurketa azkarreko teknikak ikasteko tailerra, herri liburutegietan tarteka-tarteka egiten diren literatur solasaldiak, herri-liburutegiak plazaratzeko deialdia, ipuin kontalari saioak, ipuinak sortzeko eta ilustratzeko tailerrak kasu.

Eta ekimen horiek guztiak borobiltzeko "Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina egokia da. Txartelean azaltzen den irudiak, globoa, liburuekin bidaiatzea, esploratzea eta aurkitzera gogorarazten digu. Izan zitekeen bidaiatzeko edozein gailu itsasontzi, hegazkin, tren edo bus, baina, globoa aukeratu dute euskal irakurzaletasuna sustatzeko. Globoa antzinako tramankulu zaharkitutzat jo dezakegu, baina, non hobeto hegaldi-bidaia lasaia, pausatua eta mantsoa egin nahi bada, paisaiari erreparatuz eta bien bitartean hausnartuz. Ametsen, askatasunaren eta independentziaren sinboloa da globoa askorendako. Letren Errepublika ere gisa berekoa da, mugarik gabea eta gobernurik gabea.

Agian, askorendako gehiegi esatea izanen da, baina, zenbaiti liburuek beren inguruko estutasuna hausten lagundu izan die. Ateak irekitzen dituelako ezagutzari, imajinazioari, beste mundu batzuen ezagutzeari eta besteen oinetakoak nolakoak diren jakiteari. Eta horren berri askotxo dakite emakumeek, irakurle sutsuenetakoak. Esana da "Irakurtzen duten emakumeak arriskutsuak dira" (Stefan Bollman, 2007). Egia ote? Zer pentsa eman beharko luke honelako baieztapenak. Eta horren haritik, noizbait ere entzun izan dugu batere irakurtzen ez dutenak ere beldurgarri suerta daitezkeela, emakumeak nahiz gizonezkoak izan.

Dena den, guztiok izan gaitezke irakurzaletasun-birusaren biktimak. Esaterako, Olaztiko Liburutegiko irakurketa-tertuliarako proposatutako "Una lectora nada común" (Alan Bennet, 2007) nobelaren protagonistaren modura; non jauregiko lorategira hurbiltzen den liburu-banatzaile ibiltariari esker Erreginak irakurketaren plazera eta gozamena ezagutzen duen.

Mekatxis!, orain arte ez naiz jabetu. Asteburu honetan Liburuaren Eguna ospatzen da, liburua(k) eta lorea(k) oparituz gozatzeko aitzakia ederra.

barrutik kanpora

Altsasuko euskalkia berreskuratuz... euskararen alde egotetik, alde egitera!

Urteetan jasandako asimilazio prozesuaren ondorioz, gaztelania oso onartua dugu gure artean zein gure kaleetan eta ez zaigu arrotz egiten hizkuntza hori ikustea, entzutea edota gu hizkuntza horretan aritzea. Hori horrela izanda, Euskal Herrian Euskarazek argi dauka euskaraz bizitzeko behar ditugun aldaketak norbanakoon zein hiztun komunitatearen aktibazioarekin etorriko direla.

Azken urteetako dinamika asko euskararekiko aldekotasuna lortzeari begira izan dira zuzenduak batez ere. Bada garaia, jarreretan soilik zentratu baino, jokabide aldaketetan zentratzen hasteko, euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasatzeko.

Guk argi daukagu aldaketa txikiek herrian aldaketa handiak sortu ditzaketela eta honen adibide garbia dugu azken hilabete-etako Altsasuko euskalkiaren aldeko ekimena. Hilabete gutxian, Altsasuko euskalkiarekiko interesa gazte talde txiki batek izatetik aurreko ostiralean Iortia kultur gunean 150 pertsona biltzera pasa gara.

EHEren ikuspegitik albiste zoragarria da eta, helburua bata edo bestea izanik, herritarren euskararekiko aktibazioa ematen hasi dela ikusten dugu. Eskerrak eman nahi dizkiogu gazte talde honi iniziatiba honengatik eta Euskal Herri euskaldun baten alde borrokatzeagatik. Hurrengo ekimenetan elkar ikusiko dugulakoan, AUPA ZUEK!!!

Altsasuko EHE

hara zer dien

Emakumeen osasuna?

Fibromialgia eta Neke Kronikoko Sindromearen Nazioarteko Eguna izango da hurrengo Maiatzaren 12a, eta arrazoi honekin jaso dugu Nafarroako FRIDA elkarteak egin duen adierazpena.

Hartatik egiten dituen eskaera batzuk atera nahi ditugu, emakumeen osasunarekin zuzenki lotuta daudenak alegia. FRIDAk eskatzen du 'gaitz hauen benetako egoera ezagutzea; desberdintasunak, eta generoz diskriminaturik ez dauden beste gaitzekin konparatuz ditugun zailtasunak etetea'. Honetaz aparte 'bere bizitzan emakumeen osasun integrala sustatzea' ere eskatzen dute.

Gaixotasun hauek jasaten dutenak biztanleriaren %3 omen dira, baina ehuneko honetatik %90 emakumeak dira, beraz 'gaitz hauen baremoa ezartzea gaixoei duintasuna emateko; eta gaitz hauen zailtasunen eta generoaren perfilaren ikuspegitik estudio bat egitea' eskatu ere eskatzen dute arrazoi askorekin.

Osasuna genero ikuspuntutik ikertzea jarri dute mahai gainean, bai fibromialgian bai gaixotasun guztietan, baita prebentzioan eta tratamenduetan ere. Emakumeen osasuna ez da soilik sexu eta ugalketarena; emakumeen osasunari buruz hitz egiteko arlo guztietako haien sintomak ikertzea, arrisku faktoreak ezagutzea eta emakumeen ezaugarriendako tratamendu egokiak definitzea behar da. Are gehiago bat egiten badugu Osasun Mundu Erakundeak onartzen duen osasunaren definizioarekin: 'erabateko ongizate fisikoa, mentala eta soziala, gaixo ez egoteaz harantzagokoa": Argi dago alderdi guztia hauetan emakumeen eta gizonen desberdintasunak badaudela, ezta?

Baina desberdintasunak diskriminazio ez bihurtzeko, hemendik ere eskatzen dugu emakumeen ezaugarriak kontuan hartzea, espezifikoki, ez gertatzeko FRIDAtik esaten digutena: 'Gure elkartetik ikerketa tekniko bat egin gabe, ezgaitasun prozesu judizial gogor eta neketsuetan, gizonezkoen ezgaitasun absolutuen ehunekoek emakumeenak hirukoizten dituztela ikusten dugu. (berriz ere generoz diskriminatuak ikusten dugu gure burua)'.

Emakumeen Bilgunea

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU eginen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

Bost hilabete zinemarik gabe

Gurutze Arregi Mujika eta Joakina Zubiria Galartza

Sorpresa desatsegina jaso dugu berriki: Altsasun zinema sasoia orain despeditu dela. Ez da aurreneko aldia murrizketak daudena, baina, orain bezala, apiriletik zinemarik gabe gelditzea gehiegizkoa iruditzen zaigu.

Aldi berean, sinesgaitza da udalean herritarrendako beharrezko zerbitzu hau positiboago ez baloratzea, balantze ekonomikoak kontuan izanda ere ezin da zalantzan jarri.

Preseski, denboraldi honen balorazio oso positiboa egiten dugu. Ikusleriak gora egin du. Ostegunetan ikusle berriak joaten hasi dira eta gero eta gehiago dira. Horren guztiaren arrazoiak ordutegia, prezioa eta eskaintzaren kalitate maila lirateke.

Herriari bizi kalitatea ematen dion kultura jarduera bat mantentzearen aldeko datu horiekin guztiekin, ez dugu erabaki hori ulertzen. Eskaintzen den edozein jarduerak erantzun positiboak lortzea zaila da eta honi balioa eman behar zaio.

Udalari erabakia berraztertzea eskatzen diogu. Ezin digu bost hilabete zinemarik gabe utzi.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso
ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia Mauleon
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikaren Saiburordetza

AITORTZA XUME TABERNARI: Nafarroako Ostalaritzako Enpresa Txikien Elkarteak, Anapeh-ek, elkarteko gisa 25 urte egin dituzten bazkideak omendu zituen astearteean. "Leialtasuna eta fideltasuna" eskertu zieten. Omendutako 13 establezimenduen artean Altsasuko Xume taberna.

SAKANA

Errenta aitorpena, euskaraz

Urtetik urtera gero eta sakandar gehiagok egiten dute aitorpena euskaraz. Euskararen normalizaziorako bidean pausoa da, baina pauso sendoa izateko herritar gehiagoren parte-hartzea ezinbestekoa da

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), Arbizuko eta Etxarri Aranazko udalekin elkarlanean, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina jarri du martxan aurten ere. Kanpaina horrekin, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezen bulkatu nahi da. Bide horretan, errenta aitorpena euskaraz eginda euskarari bide berriak irekitzeaz aparte, administrazioaren euskalduntzea ere bulkatzen da. Hizkuntzaren normalizazioa lortzeko euskara eremu guztietara hedatu behar da eta, horretarako, garrantzitsua da herritarrek euskaraz osotasunean bizitzeko hautua egitea. Sakanako herritarrak arlo horretan ere aitzindariak izatera animatu ditu UEMAk.

Aukerak

Aurten ere, errentaren gaineko aitorpena egiterakoan, zergadunek hainbat bide dituzte euskaraz egiteko. Nafarroako Gobernuak aitorpen proposamena gaztelaniaz egina bidali badigu, onartzerakoan euskaraz egin nahi dugula esan eta aurrerantzean euskaraz bidaliko dizkigute. Aitorpena ogasunaren bulegoan egin nahi duenak, hitzordua hartzerakoan ogasunarekin harremanak (aurrez-aurrekoak, telefonoz edo Internet bidezkoak) euskaraz nahi ditugula adierazi beharko dugu. Ogasunak sinatzeko ematen duen orria ere euskaraz jaso daiteke.

Etxarriarrak plazarantz joaten. ARTXIBOA

Errenta aitorpena Internet bidez euskaraz egin daiteke ere. Saretik errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi behar da eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu. Aholkularitzaren edo finantza erakunderen bat aukeratzen baduzu, espresuki adierazi beharko duzu aitorpena euskaraz nahi duzula.

Hondakinen kudeaketa eskola tailerra berriro eginen da

Sakanako Mankomunitateak, Ecogras Recuperación y Reciclado, Kerabi Gestión Medioambiental, S.L. eta Vermican Soluciones de Compostaje, S.L enpresekin batera, hiri eta industria hondakinen kudeaketa integralerako enplegu eskola-tailerra antolatuko dute. Bigarren urtea da halako eskaintza egiten dutena. Joan den urtean bezala aurten ere eskola tailerrean 15 sakandar ariko dira, langabezian luze daramaten hamar eta 30 urte baino gutxiago duten bost gazte. Ikastaroak urte eta erdiko iraupena izanen du. Zuzendaria eta prestatzailea arduratuko dira haien trebakuntzaz.

Enplegu eskola-tailerraren helburua da langabezian dauden pertsonen lan merkaturako sarbidea erraztea. Horretarako, ikasketak eta trebakuntza lanarekin tartekatzen dute. Tailerra aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan da Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Mank-i emandako 29.289,95 euroko dirulaguntza. Erdia Europako Gizarte Funtsetik heldu da. Europako Batasunak esandakoari segika, Mank-en sinesten dute birziklatzearen hazkundeak lanpostuen sorrera ekarriko du eta.

Eskola txikien talde identitatea dokumentuan jasoa

Ostegunean, 18:00etan, Lakuntzako kultur etxean aurkeztuko dute

Sakanako eskola txikien talde identitatea biltzen duen dokumentua jendaurrean aurkezteko garaia iritsi da. Azken hilabeteetan eskola txikietako ordezkariak udaletako eta mank-eko ordezkariekin bilerak egin dituzte, baita guraso eta irakasleekin ere. Uharte, Arbizu, Iturmendi, Urdiain eta Olaztiko eskoletan. Lanarekin nora iritsi nahi duten adierazten dute eskolek, etorkizuneko ikastetxeak irudikatuz. Horixe da agiriak jasotzen duena eta ostegunean Lakuntzan aurkeztuko dena.

Ibarreko eskolen festa

Igandean, 10:00etatik aurrera Irurtzunen

Eskola publikoaren erreferentzia indartzeko, hura kalera atera eta bere aberastasuna jendaurrean azaltzera doaz bihar. Sakanako D ereduko eskola publikoen festaren lekukoa Sakanaren mutur batetik bestera pasa zuten joan den urtean, Olatzagutiatik Irurtzunera. Atakondoa eskolako komunitateak igande goiz parteko egitarau berria antolatu du, euskarazko ereduko Sakanako eskola publikoetako komunitateen bilgune izateko. *Sakana herri eskolekin sortzen* leloa du ospakizunak, zeinari beste hau gehitu dioten: *ez galdu aukera, bizi euskaraz*.

Joan den urtean Olatzagutiako eskola komunitatea izan zen anfitrioia.

Goizean zehar gurasoek barra jarriko dute eta han jan-edanak izanen dira. Gainera, festak sortutako gastuak estaltzeko postreen zozketa eginen da. Txartelak barran izanen dira. Ospakizuna plazan izanen da, baina eguraldiak lagunduko ez balu eskolako frontoian izanen litzateke.

Egitaraua

10:00etan Dianak.
10:30etik 13:30era Sakanako eskoletako tailerrak eta eskalada tailerra frontoiaren atzeko aldean.
11.00etan Jaiaren aurkezpena: ongi etorria, bertsoak eta lekukoa pasatzea.
11:15ean Ikasleen arteko herri kirolak. 5 metroko enbor bertikala moztea eta Sakanako Harri-jasotze eskola. Ondoren txikienendako herri kirolen tailerra.
12:00etan Irurtzungo trikitilariak.
13:00etan Irurtzungo erraldoien konpartsa.
13:15ean Festako herri-koreografia!!

Hyundai Tucson Berria.
Espainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Espainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu www.hyundai.es-en

HYUNDAI NEW THINKING. NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU · 948 562 261 • IRURTZUN · 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO_2(gr/km): 119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

» Urdiain

Jende ugari eta giro ederra izan zen omenezko auzolan-omenaldian.

Auzolanean bat

Auzolana eta omenaldia. Horixe zuten buruan Benigno Mendia Goikoetxearen lagunek hura omentzerakoan. Eta larunbaterako prestatutako egitaraua horixe izan zen auzolan-omenaldia. Haren eskolari segituz, larunbatean auzolan erraldoia egin zen, zeinetan sakandar ugarik parte hartu zuten ospakizunak behar bezala aurrera egiteko. Eta lan egiteko modu horrekin sakandarrek Mendia zenaren lana aitortu zuten.

Txistularien dianen ondoren hamaiketakoa izan zen. Benignok estimatutako plazako txoko batean haren omenezko oroigarria agerian utzi zuten anaiak eta semeak. Plakan, Benignoren irudiarekin batera zera irakur liteke: *ez ga hobenak izanko, bia txarrenak eztare!* Ordurako sukaldean herri bazkarirako dena prestatzen ari ziren. Haurren bazkariaren ondoren, helduak mahaian zeudela bota zuen euri erauntsia izan zen festara gonbidatua ez zegoen bakarra. Bete-betea zegoen frontoian ospakizunak kantaitarekin segitu zuen.

Omenaldia

Hunkigarria. Horixe izan zen omenaldian izan zirenen iritzia. Haren bizitzaren pasarteak jasotzen zituen bideo emanaldiekin batera musika eta hainbat erakundeetako ordezkariak igo ziren oholtzara. Omenduak landu zituen lau ardatzen inguruan hartu zuten hitza: auzolana, euskalgintza, herrigintza eta elkartasuna. Txistularien doinura eta Benignoren lagunek herriko zortzikoa dantzatu zuten. Hura bukatu eta gero afaltzeko bokata jatea izan zen plazan eta kontzertuekin despeditu zen auzolan-omenaldia. Urdiainera jendetza joan zen eta egun guztian zehar oso giro polita izan zen.

Esker ona

Benignoren Lagunak taldearen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu aurretik, egunean bertan eta ondorengo egunetan hauspoa ematen lagundu zuten guzti guztiei: laguntza eskaini zuten udalei, bazkaria antolatzen lagundu zuten enpresei, eguna alaitzen lagundu zuten musikari zein bestelakoei, omenaldian parte hartu zuten norbanako zein taldeei, azpiegitura guztia antolatzen lagundu zutenei eta, nola ez, auzolanean aritu ziren ehundik gorako lagun guzti guztiei. Auzolanean antolatutako omenaldi eta eredu ahaztezina izan zen larunbatekoa eta aurrerantzean gure herrietan eredu hau jarraitzeko aldarria ere luzatu nahi dugu.

» irurtzun

Idaretak asteartean saria jaso zuen.

Idaretak doktoretza aparteko saria jaso du

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) egindako ekitaldian, Fran Idareta Goldarazenak doktoretzako aparteko saria jaso zuen asteartean. Idareta NUPeko Gizarte Langintzan doktorea da eta unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultatean 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan egindako doktoretza tesi onenaren saria jaso du irurtzundarrak.

Idaretak NUPen gizarte-laneko aurreneko gradu-ondokoan ikasi zuen 2006 eta 2008 artean. Hura despeditu ondoren tesia idazteari ekin zion. Emmanuel Lévinasen etika gizarte lanari hurbiltzen zion tesi batekin, filosofo juduak proposatzen dituen sentiberatasun eta zainketa nozioetatik abiaturik. Lanak nabarmendu zuen zer garrantzi daukan emozioak ongi kudeatzeak erabaki etikoak hartzeko, eta beharrezkoa dela jarrera kritikoa eta autokritikoa izatea jardun profesionalean.

Maria Jesus Uriz Peman Gizarte Laneko Saileko irakasleak zuzendu du doktoretza tesia, eta estatuko historian gizarte lanari buruzko gaian doktoretzako aparteko saria jaso duen aurreneko tesia da. Idareta gizarte laneko profesionala izan da hainbat urtetan, eta gero NUPeko Gizarte Laneko Sailean hasi zen egiten bere ikerketa eta irakasle lana. Saileko zuzendariordea da eta Efimec (Etika, Filosofia eta Zientziaren Metodologia) ikerketa taldeko kidea da. Uriz irakaslea da taldeko horretako burua.

» Arakil / Irurtzun

Aurreneko Astelehen Zoriontsuko parte-hartzaileak. UTZITAKOA

Hasi dira Astelehen Zoriontsuak

Testuren bat irakurri (prentsa, liburu…) edota ikus-entzunezko bat ikusi (telebista saioak, filmak, dokumentalak…) eta ondoren haien inguruan iritziak partekatu eta euskaraz hitz egiteko sortu berri den taldea da Astelehen Zoriontsuak. Aurreneko hitzordua Hiriberriko Txitera elkartean izan zuen, astelehenean. Josemiel Bidador pastorala ikusi ondoren hari buruz hizketatu ziren hitzordura batu zirenak.

Esperientziarekin pozik, maiatzaren 23rako jarri dute hurrengo hitzordua. Irañetako Txapel Azpi elkartean dute hitzordua, 19:30ean. Astelehen Zoriontsuak taldekoak orduan paradisu fiskalak izanen dituzte hizketagaia. Taldekideek euskaldun guztiei parte hartzeko gonbidapena luzatu diete.

MOTZEAN

Udalak Basterretxearen Enneco obra jaso du

Arbizuko Udalak Enneco, haritzaren memoria egitasmoa finantzatzen lagundu eginen du. Horregatik, hura sustatzen duen Nafarroa Bizirik fundazioak Nestor Basterretxeak parkerako egin zuen obraren errepika jaso du. Karmele Marañon alkateak fundazioko lehendakari Patxi Abasoloren eskutik jaso zuen obra.

Bestalde, egitasmoak aurrera egiteko eta elkarlanean aritzeko konpromisoa hartu du Etxarri Aranazko Udalak. Legegintzaldi osorako izanen da. Hala jasoa gelditu da Eneka Maiz Ulaiar alkateak eta Patxi Abasolo Nafarroa Bizirik fundazioko lehendakariak sinatutako akordioan. www.enneco.org web orrian daude egitasmoa laguntzeko moduen berri. +www.guaixe.eus

3 kontrataziorako deialdia

Sakanako Plan Estrategikoa aurrera eramateko Sakanako Garapen Agentziak hiru langile kontratatzeko deialdia egin du. Batetik, elikadura arloan lan eginen duen pertsona bat kontratatu nahi da, nekazaritza edo albaitaritza ikasketak dituena. Enpresa arlorako beste teknikari bat ere kontratatuko da. Biak lanaldi osora. Azkenik, administraria kontratatzeko deialdia egin da ere, hiru ereneko lanaldirako. Hiru deialdien inguruko informazioa www.sakanagaratzen.com web orrian dago. Eskabideak ostegunera arte.

Tanzaniako eskolarako dirua

Itxipuru elkarteak igandean antolatutako bigarren eskuko azokako irabaziak Born to Learn gobernuz kanpoko erakundeak jasoko du. 1.150 euroak Tanzaniako Newlands-eko komunitatean eskola bat egiteko baliatuko ditu. Azoka behar bezala antolatzeaz Itxipuruko 20 bat boluntario arduratu ziren. Azokako laguntzaile izan nahi duenak ateak zabalik ditu.

Lore eta landare artean, bizikletak

Lore Azokaren zazpigarren edizioak kadete mailako bizikleta lasterketarekin bat egin zuen. Eta txirrindulariek ere ez zuten azoka bisitatzeko aukera galdu nahi izan. Plazaren bueltan dozena erdi landare eta lore postu eta eskulangileen beste horrenbeste izan ziren. Eta erdi-erdian Arbizuko liburutegiaren mahaia. Udalak bere zerbitzua arbizuarren horrela sustatu nahi izan zuen.

SAKANA

Ahal Duguko kideak gobernu aurrerakoiaren alde

Podemos-Ahal Dugu alderdiko kideek estatuko gobernu osaketari buruzko iritzia emateko aukera izan dute asteburuan. Gehienak, %88,23, ezetz esan diote PSOEk eta Ciudadanosek gobernua osatzeko akordioa babesteko aukerari. Ahal Duguko kide gehienak, %91,79, Espainiako Gobernurako ezkerreko koalizio baten alde agertu dira. Beraz, Ahal Dugu "programa eta zenbakiek ematen duten bide koherente bakarra" defendatzen segituko du. Asteburuko bozketan, Nafarroan, %73,71eko parte hartzea izan zen.

»

Independentzia, langabezia eta prekarietatea hizpide

Hiru gai horiek izanen dituzte Jone Etxeberria eta Joseba Permach Sortuko kideak Sakanan emanen dituzten hiru hitzaldi-elkarrizketetan. "Egoera sozio ekonomikoa eta konparazio datu esanguratsuez aparte, herri eta klase bezala egin beharreko ibilbidea marraztea da helburu". Ostegunean, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean; maiatzaren 6an, ostiralean, 19:30ean Irurtzungo udaletxeann eta maiatzaren 12an, ostegunean, 19:00etan Lakuntzako Kultur Etxean.

UPN, kongresuaren atean

Erregionalistek euren 10. kongresua eginen dute Iruñean igandean. Ponenzien eztabaidarekin batera alderdiko karguak ere aukeratuko dituzte. UPNko burua Javier Esparza izanen da hurrengo lau urteetan. Oscar Arizkuren lehendakari-ordea izanen da eta Yolanda Ibañez idazkari nagusia. UPNk Sakanan 6 zinegotzi ditu: Irurtzunen 1, Uharte Arakilen 2, Altsasun 1 eta Olatzagutian 2.

» Altsasu

Berdud, doktore

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) 101 doktore berri inbestitzeko ekitaldia egin zuen asteartean. Doktore berriek doktoretza 2014ko garagarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra bitartean lortu dute. Doktore berrien artean Mikel Berdud Garcia-Lopez altsasuarra zegoen, Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak programan doktore dena. Alfonso Carlosena errektorea izan zen ekitaldiko burua. Jose Carlos Gomez Sal, Kantabriako Unibertsitateko aurreko errektorea eta Materia Kondentsatuaren Fisikako katedraduna izan zen promozioaren aitabitxia.

LABek amiantoak hildako langileak omenduko ditu

Ostegunean, 20:00etan Altsasuko Foru plazan

Sakanan amaintoaren eraginez hildako pertsonak gogoan izanen ditu LABek Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean. Ekitaldi horrekin sindikatuak "aminatoak suposatu eta suposatzen duenaren inguruan kontzientzia hartzeko eta beharrezkoak diren neurriak har daitezen exijitu" nahi du. Horretarako, LABek ekitaldia antolatu du.

Sindikatuak jakinarazi duenez, joan den urtean amiantoaren eraginez 10 pertsona hil ziren Euskal Herrian. Aurten, dagoeneko, zazpi dira hildakoak. Amiantoak kaltetutakoen Euskadiko elkarteak, Asviamiek, jakinarazi duenez, azken biktima Pedro Reca Ilintxeta izan da. Sunsundegui enpresan 1963 eta 1997 urteen artean lan egin zuen. Duela bi urte pleura mesotelioma bifasikoa atzeman zioten. 74 urterekin hil zen.

SAKANA

Klinikako langileek "benetako ikerketa" egitea eskatu dute

Nafarroako Parlamentuan aurki Josefina Arregi klinikari buruzko mozioa aztertuko dute

Nafarroako Parlamentuan aurki Josefina Arregi klinika hizketa gai izanen dute berriro. Astelehenean egindako bilkuran Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak Ahal Dugu, Geroa Bai, EH Bildu, PSN eta I-Eren mozioa tramitera onartu zuen. Bost indarren testu bateratu horretan Nafarroako Gobernuari Josefina Arregi klinikaren "ezinbesteko lana aitortzeko" eskatzen zaio. Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak martxoaren 16an klinika bisitatu zuenean halako ekimen bat sustatuko zuela jakinarazi zuen.

Astelehenean bertan, Euskadi Irratiko *Mezularia* saioko Tokikom tartean Esther Gasanz eta Itziar Iturrioz klinikako langileak elkarrizketatu genituen. Klinikarako konponbidea zein litzatekeen galdetuta, biek adierazi zutenez, "benetako ikerketa bat egitea izango litzateke konponbidea". Gasanzek azaldu zuenez, "klinikako ospitaleko 21 oheak kontzertatuta daude. Gaur egun 170 euro jasotzen dira oheko, baina errealitatea beste bat da, ohearen prezioa kontzertuarena baino garestiagoa delako". Iturriozek galdera luzatu zuen: "Osasunbideari gurearen moduko ohe bat izatea zenbat kostatuko litzaiokeen jakin nahiko genuke".

Parlamentuko Osasun Batzordeko kideak klinikan azalpenak entzuten.

Biek ere nabarmendu zuten Nafarroan pareko klinikarik ez dagoela: "inon ez dute horrelako zerbitzua hartzen duen oherik, ezta gaixoendako halako espaziorik ere". Horregatik, klinikak bere egitekoa eskaintzen jarraitzea eskatu zuten, "dagoen kontzertua hobetuz, eta segurtatuz".

Langileen egoeraz

Horretaz ere galdetu genien. Aitortu zutenez, "klinikan langileen irudimenari eta esfortzuari esker aurrera egiten dugu, baita material donazioei esker, eta nola ez, enpresek eta pertsona indibidualek egiten dituzten donazioei esker". Aitortu zuten haien lanak "ahalegin handia" eskatzen diela, "bai mentalki bai fisikoki ere". Izan ere, klinikaren ekonomia egoeragatik behar baino langile gutxiago daude, eta berez baxuak diren soldatak 2011tik izoztuak dituzte. Egoera "latza" dela aitortu dute. "Hala ere, langileok eguneroko lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara, beti pazientearen ongizatea kontuan hartuz". Ongi egindako lanaren aitortza gaixoen senideek egonaldia bukatzean erantzundako inkestetan jasotzen dute: "beti pozik, eta tratu egokia jaso dutela adierazten dute".

Zumarragako Arcelor Mittalerako lan egiten zuten Sakanako kamioilariek lan nagusia galduko dute lantokiaren itxierarekin

Itxieraren "ahaztuak" direla salatu dute Sakanako kamiolariek

Erkuden Ruiz Barroso

Jose Manuel Izagirre eta Segundo Urteaga kamioilariak dira eta Zumarragako Arcelor Mittalendako lan egiten zuten. Sakanako hamabi kamioilarik lan egiten zuten Zumarragako lantokiarendako. "Lanaren ehuneko laurogeita hamabost inguru Arcelor Mittalen egiten genuen". Zumarragako lantokia itxi ondoren etorkizun iluna ikusten dute: "esku bat aurrean eta bestea atzean gelditu gara".

Lantokia itxi behar zela jakin zenetik 350 langileez asko hitz egin dela esan dute kamioilariek. Aldiz, ez da ezer esaten lantokirako lan egiten duten beste hainbat langileez. "Enpresak kontratatutako jendeari buruz hitz egiten da; birkokatuko dituzten edo ez, lana galduko duten edo ez, zer egingo duten orduan... Baina inork ez du ezer esaten lantoki horretarako lan egiten duten kamioilariez edo beste hainbat kanpoko enpresez". Sakanako kamioilariek bat egin dute langileen borrokarekin. Manifestazio eta kontzentrazioetan parte hartu dute, izan ere, "lankideak" izan dira. Aldiz, ez dute elkartasun berdina jaso. "Gutaz ez da inor gogoratu".

Olaberriako eta Bergarako Arcelor Mittal lantokiekin hitz egingo dute Sakanako kamioilariek. Lantoki hauetan lana izatekotan emango dietela pentsatzen dute, baina oso zaila ikusten dute: "dagoeneko haiekin lan egiten duten kamioilariak daude. Oso zaila da gehiago behar izatea". Gainera, kamioilarien arteko lehia handitzen da. "Nola kendu behar diegu lana dutenei?".

Urteaga eta Izagirre Transurola kooperatibako kideak dira. Merkatuaren "arauen" arabera mugitzen dira: "nik prezio baxu bat dela pentsatzen badut eta lan hori ez badut egiten, beste bat etorriko da eta egingo du". Prezioak behera egin dutela eta konpetentzia "izugarri" handitu dela esan dute. "Lehen zonaldean nahiko ongi moldatzen ginen, baina kanpotik etorri dira, eskaintza handitu da, eta, aldiz, eskaria jaitsi". Kooperatiban 28 kamioilari dira, haietako hamabi Sakanakoak.

Etorkizun iluna ikusten dute; Lanik gabe, eta horren ondorioz, soldatarik gabe gelditzen baitira. Lantokiak ez die ezer zor: "eskatzen zizkiguten bidaiak egiten genituen eta listo; hurrengora arte". Bi bidaia mota egiten zituzten, alde batetik, zonaldean egin beharreko bidaiak, eta, bestetik, bidaia luzeak, Bartzelonara, esaterako. Urteak zeramaten Zumarragako Arcelor Mittaleko kamioilariak izaten.

Garraioa krisian

Garraioaren sektorea "beti krisian" egon dela azaldu dute Urteaga eta Izagirrek. Hala ere, krisi ekonomikoa hasi zenetik, 2008tik aurrera gutxi gorabehera, areagotu zela azaldu dute. "Lehen gaizki zegoen baina hortik aurrera kolpe handiena izan zen". Konpetentzia handia dela eta prezioak asko jaitsi direla salatu dute. Gainera, Etzegaraten bidesaria jartzen badute "beste kolpe" bat izango dela esan dute. "Bat bestearen atzetik datoz".

Segundo Urteaga eta Jose Manuel Izagirre. ERKUDEN RUIZ BARROSO



» Altsasu

Juan Jose Ibarretxe.

Erabakitze eskubidea eta kultura hizpide

Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean bi gai horiek izanen dituzte hizketagai Juan Jose Ibarretxek (Lehendakari ohia eta Agirre Lehendakaria Centerreko zuzendaria), Ainhoa Aznarezek (Nafarroako Parlamentuko Presidentea), Angel Oiarbidek (Gure Esku Dago) eta Dora Salazarrek (artista altsasuarra)

Gure Esku Dagok eta Agirre Lehendakaria Centerrek antolatu dute gaurko hitzaldia, Open Akademiako beste saio bat ere badena. Open Akademia Agirre Lehendakaria Centerren proiektua da. Zentro horrek, New Yorkeko Columbia unibertsitatearekin eta beste hainbat unibertsitate entzutetsurekin elkarlanean, ikerkuntza, berrikuntza eta ezagutzaren hedapen arloko jarduera bultzatzen du, euskal gizarteari eraldakuntza sozio-ekonomiko arrakastatsuaren eredu gisa proiektatzeko aukera eman dioten erabaki eta proiektu multzoa balioan jartzeko eta Giza Garapen Iraunkorra sustatzeko.

Open Akademiaren helburua da herritar guztiei hurbiltzea, modu ulergarri eta didaktikoan, Agirre Lehendakaria Centerrek garatutako ikerketen ondorio diren ezagutzak, edukiak eta proposamenak. Aldi berean, Open Akademiak gizartearekin eta gizartean hitz egiteko gunea izan nahi du, bertan sustatu ahal izateko balio, printzipio, uste eta identitateari buruzko eztabaida; horiek guztiek balio behar dute krisian dagoen munduak aurkezten dituen erronka ekonomiko eta sozialei aurre egin ahal izateko.

Bere aldetik, Gure Esku Dago, ekimen anitza eta parte-hartzailea, euskal herriaren erabakitzeko eskubidearen alde lanean dihardu eta hitzaldi horren antolatzaile-kide da; izan ere, aukera bat da euskal herriari etorkizuneko erronkei aurre egiten lagunduko dioten oinarriez hitz egiteko eta elkarrekin partekatzeko, iraganetik ikasiz eta geure kultura osatzen duten balio partekatuak identifikatuz.

Altsasuko Udalak ere lagunduko du ekimen horretan, "hitzaldia aukera bat baita altsasuar guztiek eztabaida irekian eta eraikitzailean parte hartzeko".

» Iturmendi

Gazte iturmendiarra epaitegira

Babes taldeak "muntaia poliziala" dela salatu du

Iruñeko auzitegian gazte iturmendiar bat autoritateari atentatua delituagatik epaituko dute gaur. Fiskaltzak harendako 18 hilabeteko espetxe zigorra eta 1.000 euroko isuna eskatzen ditu. Gainera, gaztea atxilotzeko unean Guardia Civilek ustez izandako zaurien kostua ere ordaintzea eskatzen du.

Gertaerak 2013ko Ospa Egunean gertatu ziren, Altsasun. Errepresio indarrek alde egiteko eskatuz Ospa mugimenduak egitaraua prestatu zuen. Hura eragozteko Guardia Civilen talde bereziek Altsasu hartu zuten. Askok despliegea "neurrigabea" izan zela salatu zuten. Gazte iturmendiarraren babes taldetik azaldu dutenez, Guardia Civilak "egun osoan probokatzen ibili ziren, gazteen mugimendu guztiak kontrolatzen, plazarako sarrera guztietan jarrita, bazkari herrikoia egiten zen bitartean metro gutxitara jarrita… Egunean ez zuten ezer lortu".

Atxiloketaren ondoren protesta eserialdia egin zuten gazteek.

Ospa Eguneko egitaraua bukatu eta Garagardo Azoka zegoelako jendeak parrandan segitu zuen. Babes taldetik azaldu zutenez, "testuinguru horretan, lagun talde bat herriko plaza gurutzatzen ari zenean tentsio momentu batzuk bizi ziren eta iturmendiarra hartu eta bortizki atxilotu zuten". Lurrera botatzean zauriak eragin zizkioten aurpegian, belaunean eta ukondoan. Gazteak medikura joatea eskatu zuen, bi ordutara eraman zutelarik. "Denbora tarte horretan, erabili zuten bortizkeria justifikatzeko, beraien bertsioa prestatzeko tartea hartu zuten: zauriak egin zituztela, arropa puskatu zitzaiela… Erasotzaileak biktima bihurtu nahian". *Euskal Herriaren desmilitarizazioa lortu arte alde hemendik!* aldarrikapena indarrean izanen dela gaztigatu dute. Azkenik egindako deialdietan parte hartzera deitu dute.

Deialdiak

Apirilak 22, ostirala
12:30ean Iruñeko epaitegiaren aurrean elkarretaratzea.
19:00etan Informazio batzarra, Iturmendiko enparantzan.

Maiatza 1, domeka
Elkartasun bazkaria Iturmendiko Aitzkozar elkartean.

» Etxarri Aranatz

Auzipetuen aldeko Elkartasun Eguna

Elkartasun Egunaren antolatzaileek Joxe Aldasoro eta Patxi Arratibelen askatasunaren alde "indar berezia" eginen dute aurtengo edizioan. Biak ere Ekin-en kontrako sarekadetan atxilotu eta auzipetu zituzten. Arratibel fiskaltzarekin akordioa lortu ondoren aske gelditu zen eta Aldasoro maiatzaren 17an epaituko dute Madrilen.

Biharko egunaren antolatzaileak epaiketa politikoen kontra azaldu dira. "Independentistak, ezkertiarrak izateagatik jazartuak, atxilotuak, torturatuak, espetxeratuak eta sarri, epaituak dira". Sakanan auzipetuen zerrenda gogora ekarri dute: Ekaitz, Ruben, Adur eta Fran. Haiei eta senideei elkartasuna adierazi diete. Mozal Legea eta Zigor Kodea salatu dituzte. Epaiketa politikoen kontra eta bi etxarriarren askatasuna eskatuz eginen den manifestazioak makina bat sakandarren atxikimendua jaso du, baita ELA eta LAB sindikatuena ere. Azkenik, errepresaliatu guztiei elkartasuna adierazi diete eta etxean eta aske nahi dituztela gaineratu dute.

Egitaraua

11:00etan Puzgarriak.
12:00etan Zorri azoka.
15:00etan Joxe eta Xafanen aldeko bazkaria.
18:00etan Aizkora eskolaren erakustaldia.
20:00etan Manifestazioa: Epaiketa politikorik ez! Xafan eta Joxe aske!!!
21:00etan Bide batez erromeria.

Elkartasun Egunaren aurkezpena, mahaiaren alde banatan, Joxe eta Patxi.

» Altsasu

Urte guztian Peñakide

Altsasuko Peñek martxan jarritako ekimena da Peñakide. Urte osoan peñen parte sentitzea da, eta edozein izan daiteke. Festetako kafeak, meriendak, hamaiketakoa, bazkaria eta bestez gozatzeko aukera ematen du Peñakide izateak. Gainera, urtean zehar ekintza eta sorpresak izaten dira. Peñakideek, gainera, peñen informazio eguneratua jasoko dute. Peñakide egiteko lehen epea ilbeltzean zabalduzen. Orduan izena eman zutenek hilero 5 euro ordaintzen ari dira. Bigarren epea garagarrilaren 6tik 20ra zabalduko da. Orduan izena ematen dutenek 10 euro ordaindu beharko dute. altsasukopenak@gmail.com e-postaren bidez ere eman daiteke izena.

Logo lehiaketa

Peñakideren logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu dute Altsasuko Peñek. Parte hartu nahi dutenek asteazkenera arteko epea dute lana formatu digitalean bidaltzeko. Irabazleak saria eskuratuko du eta aurkezten diren proposamen guztien egileek, oroigarria. Logoa hilaren 30eko aurkezpen ekitaldian ezagutaraziko da.

» Etxarri Aranatz

Garagardo Festa Etxarrin

Atzotik igandera, eta bigarren urtez jarraian, jubilatu elkartearen parean jarritako karpan dozena bat garagardo mota dastatzeko aukera izanen da

Garagardo Festak Etxarrin hartu duen karpak atzo zabalduzituen ateak. Joan den urtean gustura gelditu ziren emaitzarekin eta aurten errepikatzea pentsatu dute antolatzaileek. Antolakuntzan 20 bat etxarriar aritu dira, hainbat taldetan banatuta: komunikazioa, eskaerak egiten, muntaian edota koordinazio lanetan. Karparen irekiera ordutegia, atzo eta gaur, 19:00etan izanen bada, bihar 18:00etan irekiko da eta igandean 15:00etatik aurrera.

Jatekorik eta edatekorik ez da faltako karpan: kupeleko bost garagardorekin batera, botilako beste 6 dastatzeko aukera izanen da. Mahairatzeko aldiz, txerri ukondoa, bi saltxitxa mota, oilasko hegalak eta patata minak izanen dira. Gainera, ekitaldiak ere izanen dira: larunbatean, gauerditik aurrera, Luziano Show musika emanaldia eta, igandean, mus txapelketa azkarra. Azken horretan izena eman nahi duenak 15:00etatik aurrera du aukera; txapelketa 16:15ean hasiko da.

Arakil

Hiru peoi kontratatzeko deialdia

Arakilgo Udalak jakinarazi du hiru peoi sei hilabeterako kontratatuko dituela. Zerbitzu anitzetako enplegatu gisa kontratatuko dituzte. Hirurek udalaren lanen brigada indartuko dute Deialdian interesa dutenek astelehenera arteko epea dute euren eskaerak aurkezteko. Jarraian aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte: Arakilen erroldatuta egotea, adinez nagusi izatea, aurreikusitako lanak egiteko inolako trabarik ez izatea, halako lanetan jarduteko inhabilitaziorik ez izatea eta B mailako gida baimena izatea. Deialdiaren informazio guztia www.arakil.net web orrian dago.

Altsasu

Ikurrinik gabe

Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak ez du udalaren helegitea onartu eta ikurrina kentzea berretsi du

San Juan eta Zelai kaleen bidegurutzearen ondoan hiru masta jarri zituen Geure Ikurren Alde ekimenak 2014ko otsailaren 23an. Batean Altsasuko bandera zegoen, bestean Nafarroakoa eta azkenekoan ikurrina. UPNren esku zegoen Nafarroako Gobernuak ikurrina jartzearen kontra epaitegira jo zuen eta Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Iruñeko 2. Epaitegiak haren alde egin zuen. Udalak helegitea jarri zuen eta Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak aurretik emandako epaia berretsi du.

SAKANA

Euskaraz bizi nahi duten udalei eta herritarrei bideak bermatzea

Horixe eskatu dio Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Nafarroako Gobernuari. Euskaldunek Nafarroan euskaraz bizi ahal izateko urratsak eman ditzala, "bertako udalerri euskaldunen errealitate soziolinguistikoa aitortuz". UEMAko zuzendaritzakoek EAEko Udal Lege berriaren balorazioa egiterakoan esan zuten hori. "Udalerri euskaldunek, euskararen aldeko hizkuntza politika ausarta garatzeko, beharrezkoa zuten lege honek hainbat arlotan ematen dien babesa". Babes hori Nafarroan ere izan nahi dutela esan diote Gobernuari.

Etxarri Aranatz

Ama Lurra azoka: Sakanako lehen sektorearen erakusleihoa

Igandean, 10:00etatik aurrera

Abeltzaintzako eta nekazaritzako ekoizpen eta kontsumo arduratsuko hitzorduak bosgarren edizioa du aurten. Ibarreko lehen sektoreko ekoizleak biltzen dituen Belardi elkarteak sustatzen du azoka, Etxarri Aranazko Udalarekin batera. Euren helburua Sakanako lehen sektorea jendaurrean erakustea da. Horrekin batera, ekoizleen eta herritarren arteko harremana indartzea, kontsumo tokiko-kateen sorrera bulkatuz.

Sakanako nekazari zein abeltzain taldeak ekoizpen ereduan ematen dituzten berrikuntzarako pausoak ere azalduko dituzte. Horien artean dago, esaterako, Etxarrin egindako Bokashia ezagutzeko aukera (Belardi, Uztarri eta Ximaurpila). Bokashia nekazaritza biologikoaren teknika aitzindari baten bidez lortutako ongarri organiko naturala da, ingurumena errespetatzen duena. Nekazaritza eta abeltzaintza organikoko materialen erakuseta ere ikusteko aukera izanen da.

Ohi bezala, ibarreko azienda (behiak, behorrak, ardiak, astoak, euskal txerriak…), lan tresnen, elikadura sistemaren faseen erakusketak izanen dira. Etxarriko herribaratzek euren jardueraren berri emateko informazio-gunea izanen dute. Udaberrian artaldeak mendira igo aurretik artzainek bi langintza dituzte: ardiei ilea moztea eta, batez ere, gazta egitea. Bi egiteko horien erakustaldia izanen da Etxarri Aranatzen.

Azoka gardenean Sakana eta Nafarroako hainbat ekoizleren salmahaitan haien produktuak erosteko aukera izanen da.

Egitaraua

10:00etan Azoka-irekiera.
11:30etik aurrera erakustaldiak: ardien ile-moztea eta gazta egitea.
12:00etan Euskal txerri errea dastatzeko aukera.
12:30ean Haurrendako antzerkia.
Goizean zehar Etxarriko gaiteroak herrian barna.

SAKANA

Zorri Azoka "hasierako filosofiarekin" itzuliko da

Lau hilabeteko etenaren ondoren azoka soziala egingo dute berriro Etxarri Aranatzen

Erkuden Ruiz Barroso

Lau hilabeteko etenaren ondoren Zorri Azoka bihar bueltatuko da.

Zorri Azoka artisau, bertako ekoizle, ekoizle ekologiko eta beste ogibide "ez hain indartsuen" topagune bezala sortu zen. Krisi ekonomikoak Sakanan gogor jo zuenean elkartzea erabaki zuten, Alazne Juaniz Zorri Azokaren sortzaileetako batek azaldu duenez. "Alde batetik Sakana bulkatzeko nahiarekin hasi ginen elkartzen, baita ikusten genuelako ekonomiarekin eta krisiarekin zerikusi handia duten hainbat gai landu behar zirela ere". Azoka "aitzakia" zen, Zorri Azoka "topagune" bezala jaio baitzen.

Orain dela hiru urte egin zuten lehenengoa. Hasieratik argi izan zuen zein zen azokaren filosofia eta helburuak. Hori aurkeztu zioten Etxarri Aranazko Udalari eta hori egin nahi zuten. Baina, denborarekin "merkadillo" bat bihurtu zen: "ikusi genuen gure hasierako nahietatik pixka bat aldendu zela". Beraz, abenduan etetea erabaki zuten. Aldiz, elkartzen jarraitu ziren. "Bi aukera genituen, hasierako filosofiarekin jarraitu, buelta batzuk eman eta aurrera egin; edo proiektua amaitutzat ematea, ez da ezer gertatzen". Hasierako ideia "birplanteatu" zuten eta Zorri Azoka apirilaren 23an itzuliko da Elkartasun egunaren harira: "gonbidatu gintuzten eta hasieran ez genuen parte hartu nahi ez genuelako beste merkadillo bat egin nahi. Baietz esan genien baina baldintza batekin: Zorri Azoka izatea, finkatutako filosofia horrekin".

Zorri Azoka, beraz, Azoka bat baino gehiago da. Zorri Azoka bakoitzean gai "sozial" bat jorratuko dute: "kilometro zero eta bertako ekoizleak, bertako produktuak erostea bulkatzea, merkataritza lokala bulkatzea, bertakotasunaren alde egitea, azken finean; beste gai bat ehunak izango dira, ehungintzaren industrian ematen den esplotazioa, ehun ekologiak, aukerak bilatu; energia berriztagarriak; Sakanako landa etxeen elkartea ere hor dago; Amai taldea...". Zorri Azoketan gai horri buruzko gonbidatuak egongo dira. Reas, Fiare eta Goiener elkarteekin harremanetan daude eta "sare" bat sortu dute.

Etapa berria

Zorri Azoka sortu zutenean hilabetero egiten zuten. Hasieran hilabetearen lehenengo ostiralean eta hilabetearen lehenengo igandean gero. "Hilabetero postua prestatu behar izatea, hilabetero Azoka antolatzea lan handia zen". Etapa berri honetan jende gutxiago gelditu da eta, ondorioz, urtean lau edo bost Zorri Azoka egingo dituzte. "Irekiak gaude. Gure asmoa taldeak eta jendea elkartzea da. Gauza alternatiboak egiteko potentziala dagoela ikusteko leku bat izatea nahi dugu". Etxarri Aranatzen eginen dituzte, baina ez dituzte beste aukerak ixten: "talde bat etortzen bada eta ideia bat badauka entzungo diogu".

Zorri Azoka "gogoz" itzultzen da. Zortzi edo hamar postu gelditu dira, baina, gonbidatuekin batera hamalau edo hamasei postu egongo dira bihar: pasta ekologikoa, gazta ekologikoa, barazkiak, artisauak, Batuta taldearen altzariak... Itzulera egunean Azoka Sozialari buruz hitz egingo dute eta horretarako Reas elkarteko kideak gonbidatu dituzte. Iruñerritik ere haien esperientzia kontatuko dute. Aurretik, Zorri Azokaren aurkezpena egingo dute.

Facebook

Sare sozialean orrialdea sortu dute Zorri Azokaren informazioa helarazteko asmoz. Bertan Azokaren azken albisteak, gonbidatuak, gaiak, eta abar jarriko dituzte.



gk
KOMUNIKAZIOA

itzulpenak

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107

diseinua

argitalpenak

irudi korporatiboa

app-ak

Urtarrila

Baratxuria
Tipula goiztiarra
Kukuluak
Ilarra
Baba
Uraza

Otsaila

Zerba
Tipula goiztiarra
Kukulua
Ilarra
Uraza
Baba

Marsua

Zerba
Tipula gorria
Zainzuria
Marrubia
Uraza
Patata
(LEHEN HAMABOSTALDIA GOIZTIARRA ETA BIGARREN HAMABOSTALDIAN ARRUNTA)
Aza goiztiarra
Tipula goiztiarra
Borraja
Kukulua

Apiribila

Zerba
Tipula gorria
Uraza
Perrexila
Patata
Tomatea (negutegian)
Azenanarioa
Valentziako tipula
(15ETIK AURRERA)
Aza
Tipula goiztiarra
Borraja
Kukulua

Maiatza

Zerba
Borraja
Uraza
Patata berantiarra
Azenarioa
15ETIK AURRERA
Berenjena
Pipermina
Pepinoa
Sandia
Apioa
Valentziako tipula
Tomatea (negutegian)
Porrua
Aza
Kukulua
Perrexila
Erremolatxa
Indabak
Kuiatxoa
Meloia
Piper berdea eta gorria
Tomatea

Garagarrila

Zerba
Aza
Valentziako tipula
Ereiteko kardua (LEHEN HAMABOSTALDIA)
Uraza
Azenarioa
Piper berde eta gorria
Erremolatxa
Porru goiztiarra
Tomatea
Indaba berdea eta lehorra
Borraja
Kukulua
Pepinoa
Apioa
Kuiatxoa
Perrexila

Garila

Zerba
Apioa
Landatzeko kardua
Uraza
Romanesko
Tomatea (negutegian)
BIGARREN HAMABOSTALDIAN
Brokoli
Bruselako aza
Azalorea
Lonbarda
Atxikoria
Borraja
Porrua
Aza
Indaba berdea
Kukulua
Eskarola goiztiarra
Erremolatxa

Agorrila

Zerba
Apioa
Brokoli
Azalorea
Ziazerba
Uraza
Lonbarda
Porrua
Erremolatxa
Atxikoria
Aza
Kukulua
Eskarola
Romanesko
Orburua
Borraja
Bruselako aza

Iraila

Zerba
Uraza
LEHEN HAMABOSTALDIA
Atxikoria
Borraja
Eskarola
Porrua
Azalore berantiarra
Kukulua

Lastaila

BIGARREN HAMABOSTALDIA
Tipula goiztiarra
Ilarra
Baba

Azaroa

Baratxuria
Tipula goiztiarra
Ilarra
Baba

Abendua

Baratxuria
Tipula goiztiarra
Ilarra
Baba

Terrazetako eta balkoietako loreak aukeratzeko hainbat aholku

Loreak eta landareak aukeratu aurretik komeni da jakitea edo aztertzea terraza edo balkoia eguteran dagoen edo ez, eguzkiak zenbateraino jotzen duen edo zein haize korronte nagusitzen den.

Terraza edo balkoiaren orientazioa

Hori da lehenik ikusi behar dena, eguzkiaren indarrak eta haize-korronteek asko baldintza dezaketelako landarearen bizi-iraupena. Lekua eguzkitsua bada eta loreak jarri nahi izanez gero, petuniak aholkatzen dira, bestela arrosak, ziniak edo krabelinak . Ezpela oso gogorra da eguzkitan ipintzeko, baita beste zenbait landare usaindun ere: ezkaia edo izpilikua esate baterako. Itzal handiko lekua bada, oso egokiak dira fuksiak edo begoniak , hortentsiak, udaberri-loreak, ziklamenak edo baltsamina arruntak . Huntza ere ongi hazten da leku itzaltsuetan.

Intimitatea zaintzeko

Balkoi edo terraza osorik zurea ez bada, baizik eta familiaren artean partekatua, komeni da auzokoaren terraza-mugan heskaia edo landare igokaria jartzea intimitatea zaintzeko, lasaiago egoteko. Huntza oso gogorra da eta edozein klimatan ondo irauten du. Jasmin-landareak eta jasmin faltsuak ez dituzte hostoak galtzen eta usain onekoak dira, baina eguteran jartzeko egokiagoak, izotzak kalte handia eragiten baitie. Glizina landare igokaria da, pergoletan jartzeko aproposa eta mahatsondo arrunta ere ona da , oso azkar hazten baita.

Zuhaixkak

Heskaiak oso egokiak dira urte osoan balkoia edo terraza osoa berde kolorez edukitzeko. Gogortxu izeneko landareak irmo eusten dio edozein eguraldi aldaketari. Evonimus esaten diotena ere oso aproposa hesi txikiak jartzeko. Usaindunen artean aipatzekoak dira abelia , ezkaia eta erromeroa .

Loreak

Loreak osotasuna ematen du balkoian eta terrazan, alaitu egiten du giroa. Terraza ondo apaintzeko onena hostoak galtzen ez dituzten zuhaixkak landatzea da, gogortsuak adibidez, eta haiekin batera garaiko loreak tartekatzea. Horrela lortuko dugu berdetasuna eta koloreak nahastea. Geranioak eta petuniak egokiak dira udaberrian jartzeko, udazkeneko lehen hotzak arte oso ondo irauten dute eta. Pentsamenduak oso egokiak dira negurako. Udaberri-loreak, aleliak eta landare usaindunak berde irauten dute urte osoan, eta urteko garai jakin batean bakarrik ematen dute lorea. Terraza beiraz itxita baldin bada, lore tropikalak jar ditzakegu giro exotikoagoa lortzeko.

SAKANA

Hondakin planean inolako errausketa eredurik ez izatea eskatu dute

Planaren parte hartze prozesuko Irurtzungo bileran erakundeek eta herritarrek "aho batez" eskaera hori egin zuten

Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko 2016-2025 Plan Integratu berria ezagutu eta eztabaidatzeko hirugarren tokiko bilera egin zen Irurtzunen herenegun. Zehazki bi izan ziren; lehenik Araxesko, Mendialdeako eta Sakanako mankomunitateetako zuzendaritza taldeak eta teknikoak planaren kudeatzaileekin elkartu eta, ondoren hiru eskualdeetako udal ordezkariek eta herritarrek ere parte hartzeko aukera izan zuten. Bietan ere planean jasotzen diren helburuak, azpiegiturak, kudeaketa eredua, gobernantza eredua, frakzio organikoaren tratamendua, industriako hondakinak eta beste izan zituzten hizpide.

Bi bileretan elkartu ziren guztiek, aho batez, hondakinen edozein errausketa motaren kontra azaldu ziren. Nafarroan hondakinekin errauskailuetarako erregaiak egitearen aurka ere azaldu ziren. Sakanako Mankomunitateko presidente Aitor Karasatorre Muguruzak esan zuenez, "ez dugu ez hemen ez beste inon erraustea nahi". Horregatik, hondakinetatik materialak ahalik eta gehien berreskuratzearen aldeko apustua egin zuten. Karasatorrek esan zuenez, "planaren zirriborroak eta Europako araudiak 2025erako hondakinen %75eko berreskuratzeko helburua ezartzen dute. Baina hondakindegietako errefusak ahalik eta gehien berreskuratuz eta aukera horretan ikertuz %85era arte iritsi liteke".

Gobernantza

Nafarroa osorako hondakinen kudeaketa publikoa aldarrikatu zuten eta berau erakunde publiko bakar batek kudeatu dezala. Izan ere, gaur egun bi daude: Sakanako Mankomunitatea eta beste 14 biltzen dituen Nafarroako Hondakinen Partzuergoa eta Iruñerriko Mankomunitatea. Gobernantza erakunde bakarraren alde bai, baina mankomunitate bakoitzak hondakinak kudeatzeko eredua aukeratzeko gaitasunarekin, enplegu edo prestakuntza arlotan, esaterako, herrien eta eskualdeen ekimenak ez mugatzeko.

Nafarroa guztian zerbitzu homogeneoa ematea eta kostu eta prezio bateratuak izatea nahi lukete. Bi bileretan hondakin gehien sortzen duenak gehiago ordaintzearen, alde agertu ziren. Eta horri lotuta, hondakinak ongi sailkatzen dituztenendako hobariak eta gaizki egiten dutenendako zigorrak jartzea egoki jo zuten. Toki erakundeen arteko elkartasun irizpideen beharra ere premiazkoa jo zuten. Nafarroa guztian denek erabiltzeko moduko azpiegitura sare bat behar dela ere ondorioztatu zen.

Ekarpenak

Bileran, besteak beste, honako ekarpenak egin ziren: mankomunitate guztiendako baliagarria izanen den datuak biltzeko eta jarraipena egiteko sistema estandar bat, horrela konparazioak eta jarraipena egoki egiteko; helburuak edo araudiak ez betetzeagatik Europatik etor daitezkeen zigor posibleak hondakinak zuzen kudeatzen dituztenei eragitea eta helburuak betetzen diren egiaztatzeko jarraipen plana eta egutegia faltan sumatu zuten.

Planean jasoa dagoenez 2020rako 2010ean baino %10 hondakin gutxiago sortzea aurreikusi da. Helburu horrek gutxienekoa izan behar duela adierazi zuten bileran, handitu daitekeela. Baina, horretarako, ezinbesteko jo zuten sentsibilizazioan eta ingurumen heziketan lan berezi eta jarraitua. Gaur egun materia organikoa aparte bereiztea borondatezkoa da eta hiru mankomunitateetako ordezkariek herritar guztiek parte hartzea eskatu zuten. Araudiaren bidez edo bestela. Horrek bilketa %70era igotzea ekarriko lukeela adierazi zuten. Ezinbestekotzat jo zituzten gaikako bilketak, garbi gune gehiago egotea, obra txikiak egiten dituztenek leku itxi eta kontrolatuetan botatzeko aukera izatea eta materia organikoaren konpostatzeari bultzada ematea.

Epeak

Bileretan izan zirenak parte hartze prozesuaren balorazio positiboa egin zuten. Hilabete barru berriro beste bilera bat izanen da. Bestalde, azaldu zutenez, planeko helburuak beteko balira nafarrak hondakinen kudeaketan estatuko aitzindariak liratekeela ziurtatu zuten. Hilabete inguru barru bilera berria izanen da, iritziak kontrastatzeko. Nafarroako Gobernuak parte hartze prozesua uda aurretik itxiko du eta urtea despeditu aurretik plana egina izatea.

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 197 070
Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza
www.tanatoriosirache.com

Martin Zelaia Mendia

(Mari Carmen Lezea Mujikaren alarguna)

Iruñean hil zen, 2016ko apirilaren 17an, 71 urte zituela.

Bere seme-alabak, Javier, Atxus eta Silvia; anai-arrebak, Mari Tere (+) eta Fernando, Jose Luis eta Arrate, Juan Jesus eta Isabel, Mikel eta Malusa; ilobak, lehengusuak, lehengusinak eta gainontzeko senideak.

Familiak esker onez hartzen du Altsasuko Osasun zentroko eta Nafarroako Ospitaleko Kardiologia zerbitzuko langileengandik eta Lurdesengandik jasotako laguntza. Baita eskerrak eman ere beilatokira eta errausketara etorri ziren lagunei eta Atxusen koadrilari.

Agurra emanen zaio apirilaren 24an, igandean, eguerdiko 13:00etan Altsasuko San Pedro zelaian.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Euskara hutsean argitaratuko dira.

Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Lana

LAN ESKAINTZA

Andra Mari Ikastolako garbitasun lanpostuak osatzeko deialdia. Bidali CVa argazkiarekin etxarri@ikastola.eus helbidera gaia "Garbitasun Lanpostuak" dela zehaztuz edo ikastolako idazkaritzan aurkeztu maiatzak 6a arte."

Opatutakoak / galdutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko

Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurrekozorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objetu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Ikastaroak

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU). Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu ditu Nafarroan, www.ueu.eus

Batukada ikastaroa. Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean, apirilaren 23an eta 24an, 18:00 etan. Irakaslea: Oskar Estanga. Plazak libre daude. Hilaren 22ra arte eman daiteke izena. 3 € ordaindu behar dira. Informazio gehiago: 948 56 47 85 edo intxostiapunta@gmail.com

JAIOTZAK

- **Malen eta Aratz Unamuno San Miguel,** apirilaren 15ean Altsasun.
- **Jon Lopez de Sabando Alegria,** apirilaren 13an Etxarri Aranatzen.

EZKONTZAK

- **Martin Argentino Hualde Casimiro eta Erkuden Moreno Lopez,** apirilaren 16an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Jose Luis Lopez Gastaminza,** apirilaren 15ean Olaztin.
- **Angel Muñoa Alzola,** apirilaren 18, Altsasun.
- **Juana Razkin Iriarte,** apirilaren 14an Arbizun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko. Ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei, bereziki izapideak on- line egin nahi dutenei zuzenduta. Apirilak 25, 10:00-14:00. Cederna Garalur/Utzugane, Arbizu. Izen ematea 948 56 10 10 edo sakana.admon@cederna.es. Haziendako izapideak on-line bidez nola egin.

Ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei, bereziki izapideak on-line egin nahi dutenei zuzenduta. Maiatzak 2, 10:00-14:00. Cederna Garalur/Utzugane. Arbizu. Izen ematea 948 56 10 10 edo sakana.admon@cederna.es

SASKIBALOIA

NAFARROAKO LEHENAK:

Gizonezkoetan eta autonomiko mailan CSBASK saskibaloi taldea lehena izan da Nafarroan. Asteburu honetan finalak jokatuko dira.

kirola >>

Lasterketak

Etxarriarrak lanean

23. Azkoitia-Azpeitia maratoi erdian, Emmanuel Bett izan zen irabazlea. Sakandarren artean hiru etxarriar zeuden.

Sailkapena:

1.	Emmanuel Bett	1:01:47
265.	Kaxi Estarriaga	1:34:52
505.	Iñaki Gartziandia	1:48:19
648.	Edurne Razkin	2:23:05

Sakandarrak Atarrabian

XXVIII. Hiru Herri Lasterketa Herrikoian, gizonezkoetan Javier Nagorek irabazi zuen (31:34) eta emakumezkoetan Alejandra Arribas (38:24).

Sailkapena:

1.	Javier Nagore	31:34
81.	Patxi Fernandez	38:54
98.	Javier Pain	39:29
127.	Izaskun Beunza	40:43
176.	Jesus Mª Olmo	42:15
349.	Ginesa Lopez	46:07
550.	Jexux Mendinueta	50:22
571.	Eva Duran	51:01
627	Jose Mª Mercero	52:11
654.	Isabel Pozueta	53:24
744.	Maite Duran	56:12

Oharra: sakandar gehiago egon daitezke.

3 sakandar korrika

Estibaliz Igoera XXXI. Vitoria-Gasteiz Herri Lasterketan Marc Hurtado izan zen lehena eta hiru altsasuarrek parte hartu zuten.

Sailkapenak:

1.	Marc Hurtado	49:57
21.	Patxi Cano de los Santos	58:07
47.	Andoni Azanza	1:01:03
76.	Iker Flores	1:03:40

III. PEÑAFLORIDA LASTERKA

III. Peñaflorida lasterkan, 7 km-ko distantzian, Altsasuko Andoni Azanza Soto 23.a sailkatu zen (27:44).

TERRITORIO VISON FALTZES LASTERKETA

Territorio Vison Faltzes lasterketan, 10km-ko distantzian, Asier Estarriaga Navarro etxarriarra 24.a sailkatu zen (43:04).

Mendi lasterketa

Sakanako ordezkaritza zabala

Aurreko igandean, apirilaren 17an, Berako XII. Maratoi erdia (21 km) izan zen eta 528 korrikalari kamaitu zuten froga. Lehena amaitzen Hondarribiko Oier Ariznabarreta izan zen gizonezkoetan eta emakumezkoetan Uztarrozeko Laura Sola de Miguel izan zen. Sakandar ugarik parte hartu zuten frogan.

Sailkapena:

1.	Oier Ariznabarreta (Hondarribia)	1:44:39
12.	Jose Javier Maiza (Etxarri)	1:54:37
55.	Aritz Munarriz (Etxarri)	2:04:15
56.	Fidel Jimenez (Etxarri)	2:04:16
71.	Alberto Razkin (Etxarri)	2:06:28
83.	Mikel Perez de Eulate (Etxarri)	2:08:08
188.	Mikel Rubio (Irurtzun)	2:18:54
199.	David Mutiloa (Irurtzun)	2:20:14
203.	Gorka Arratibel (Etxarri)	2:20:19
215.	Gorka Verdugo (Etxarri)	2:21:07
218.	Fran Araña (Arbizu)	2:21:11
301.	Iban Verdugo (Etxarri)	2:29:57
302.	Juan Daniel Lakuntza (Etxarri)	2:29:57
376.	Javier Gonzalo (Uharte)	2:37:25
409.	Jon Goikoetxea (Etxarri)	2:41:51
439.	Xabier Zabalza (Arbizu)	2:45:58
440.	Marian Ijurra (Arbizu)	2:45:59
474.	Josean Markez (Olazti)	2:53:16

Lasterketa

II. ARRASATE-UDALATX

Uhartear bat Arrasaten

II. Arrasate–Udalatx mendi lasterketan, 21 km-ko distantzian, Uharte Arakileko Patxi Rubio Martinez 54.a sailkatu zen (2:23:25) eta Udalaitzeko partzialean 62.a sailkatu zen (29:37).

Irristaketa

Unai Villalobos, Anne Lapuente eta Ander Chamorro.

Dominak Sakanara

Aurreko asteburuan Nafarroako Irristaketa Txapelketa ospatu zen Iruñean eta Mikel Benali (Amaya) izan zen txapeldun handia. Amaya Kirol Hirian ospatu zen jardunaldia eta Espainiako Txapelketarako baliagarria zen.

Senior kategorian Ioseba Fernadez, iturmendiarrak (Independiente) urrezko bi domina lortu zituen. Bestalde Sakana Irristaketa taldeko irristalariek bi domina ekarri zituzten etxera. Hauek parte hartzaileak:

Ana Rita Correira de Fernadez (infantil), Jose Diego Da Costa Azevedo (infantil) eta Anne Lapuente Perez (Alebin). Azken honek, Annek, bi domina ekarri ditu etxera eta sailkapen orokorrean bigarren dago, lehendabizikoarengandik puntu batera.

Emaitzak:

300 m sprint
1. Anne Lapuente Perez

2500 m linea
2. Anne Lapuente Perez

3000 m puntoak
4. Anne Lapuente Perez

Bestalde, Barañaingo Lagunak taldearekin lehiatzen diren Ines Moreno, Cristina Aldeano, Ander Chamorro eta Unai Villalobosek lan ona egin zuten.

Emaitzak:

300 m sprint erlojupekoa
2. Ander Chamorro

500 m sprint
2. Ander Chamorro

5000 m kanporaketa
2. Unai Villalobos

3000 m puntuak
2. Unai Villalobos

300 m erlojupekoa
3. Unai Villalobos

500 m sprint
3. Unai Villalobos

Espainiako Pistako Txapelketa maiatzaren 7an eta 8an ospatuko da Valentzian.

Pilota

Ezkurdia Labriteko kantxara berriz

Ezkurdia Merino II.a baino askoz gehiago izan zen Labriten, apirilaren 15ean jokatu zen buruz buruko lehen partiduan. 22-2 ko emaitzak eta 109 pilotakadek dena adierazten dute. Partidu azkarra izan zen eta Ezkurdia ziurtasun osoarekin aritu zen. Hurrengo hitzordua Retegi Birekin izango du larunbatean, apirilaren 23an, atzera ere Labriten jokatutako partiduan. Norgehiagoka paretsua izatea espero da, buruz burukoan esperientzia handia duten bi pilotari baitira.

GRAVNI: Nafarroak bukatu du lehen fasea

Iparraldekoen kontra jokatutako frontoiko partiduetan bederatzi aukeretatik bost garaipen lortuta itzuli ziren nafarrak. Palan eta jubenil mailan, nafarrek galdu egin zuten Iparraldekoen aurka, Espinal-Parot (Nafarroa) 18-irigaray-Behasteguy (Iparralde) 30.

XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketa

Emaitzak:

Azpiri-Perez **22**/Garralda-Landiribar **16**
Ongay-Tabar **22**/Aznarez-Linzoain **20**

Igandean, apirilaren 24ean, goizeko 11:00etan, Irurtzunen
Ojuel-Murgiondo/Urretabizkaia-Telletxea
Espinal-Legarreta/Arrieta-Arratibel

Asteburuko emaitzak

ElkarPelota Txapelketan, Toki Eder pilotalekuan Aoizen eta Benjamin mailan Markina (Irurtzun) 16- Albizu (Tutera) 3. Alevin mailan, Bustince (Noain) 9-Imaz (Arbizu) 16 , Lerga (Tafalla) 3-Retegi (Paz de Ziganda) 16. Infantil mailan, Bengoetxea (Irurtzun) 18- Etxagüe (Ardoi) 12 Kadetetan, Barriola (Ardoi) 18-Zabaleta (Irurtzun) 6 eta Roldan (Ardoi) 18-Senar (Etxarri Aranatz) 11. Jubenil mailan, Kanabal (Oberena) 22- Galarza (Arbizu) 8.

Josetxo Ezkurra oroimenezko txapelketan, Sunbillan jokatutako partiduan kadete mailan Ganboa (Gure Pilota) 11 - Oier Ariztegi (Bortziriak) 18.

Non erabili

BASOMUTUR
ALTSASU
Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA
ALTSASU
Eguneko menuan, kafea doan. Karta menuan, kopa doan.

GERTU SAKANA
ALTSASU
Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA
IRURTZUN
Utsusuky packetan, % 30eko deskontua.

ASENSIO
ALTSASU
100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO
ALTSASU
Eguneko menuan txupitoa doan.

VALCARCE
OLAZTI
0´06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

EDERNE ILEAPAINDEGIA
LAKUNTZA
30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko zerbitzuekin, makilaje ukitua doan.

GK
%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

XAGU
ALTSASU
% 5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€
948 564 275

Txirrindularitza

Emma Johansson eta Megan Guarnier, bi emakume bi txapeldun

Bi izen hauek izan dira aurreko asteko izen esanguratsuak. Emma Johanssonek lortu du Emakumeen bira irabaztea bigarren aldiz eta azken eguneko etapa Megan Guarnierrek. Batek hasi bezala bukatu du , Durangoko klasika eta azken eguneko etapa irabaziz eta bestea, nahiz eta hasieran sabeleko minez egon, menderaezina den suediarra da. Lehen euskalduna Ane Santesteban izan zen, 11.a.

Esan Etxarrin hasi eta urkiolan bukatu zen etapan oso giro polita izan zela irteeran eta Etxarriko plazara makina bat sakanadar hurbildu zirela Emakumeen Birari bere babesa ematera.

Irteera Etxarrin.

XXIX. CC Burunda Saria Altsasun

Kadeteak errepidera Altsasun

Igande honetan, apirilaren 24an, goizeko 11:00etan kadete mailako lasterketa ospatuko da Altsasun. Ibilbideak 63,5 km dauzka eta irteera Foru plazan eta helmuga Udaletxe aurrean izango ditu. Antolatzaileek 200 txirrindulari baino gehiago espero dituzte.

Txirrindulariak Lizarran eta Arbizun

Sailkapenak:

2.	Asier Etxeberria	2:02:46
6.	Alex Unzilla	2:02:46
16.	Juan Riaño	2:03:02
17.	Xabier Maiza	2:03:02
35.	Hodei Zia	2:04:35
43.	Oihan Vinagre	2:08:14
44.	Daniel Izquierdo	2:08:14

Asier Etxeberria 2.a eta mendiko sariduna Lizarran

Aurreko larunbatean Lizarran XI. Area 99 Saria ospatu zen junior kategorian, 83km-ko lasterketan Arturo Gravalos-ek (Asesores de Navarra) irabazi zuen (2:02:38) eta sakandarrak bertan izan ziren. Quesos Albeniz taldeko Asier Etxeberriak mendiko saria ere irabazi zuen.

Quesos Albeniz Arbizun lehena taldekakoan

Aralar txirrindulari Taldeak antolatutako Arbizuko kadeteen lasterketa igandean ospatu zen. 50km-ko ibilbidea egin zuten eta lasterketako irabazlea Toyota Armentia taldeko Joseba Lopez izan zen (1:24:34). Taldekako sailkapenean Quesos Albeniz izan zen lehenbizikoa

Sailkapena:

5.	Ailetz Lasa (Q.A)	1:25:08
6.	Marcos Pison (Q.A)	1:25:08
7.	Josu Etxeberria (I.I)	1:25:08
8.	Mateo Gonzalez (Q.A)	1:25:08
22.	Josu Jaka (Q.A)	1:28:12

Triatloia

Iñaki Gallego altsasuarra Bartzelonan

Iñaki Gallegok, Trigoi taldeko triatleta altsasuarrak, Bartzelonako Kanal Olinpikoko Fass-triatlon frogan parte hartu zuen. 344 partehartzeile izan ziren eta sailkapen orokorrean 126. helmugaratu zen, beterano kategorian 11. izanik (1:10:15). Gizonezkoetan Nan Oliveras izan zen lehenbizikoa (0:54:47) eta emakumezkoetan Laia Conesa izan zen garailea.

Duatloia

AZKOITIAKO XVII. DUATLOIA

Juan Luis Maiza 22a

Pasa den igandean, hilaren 17an Azkoitian ospatu zen duatloian David Garcia Gilek irabazi zuen 1:38:25 denbora eginez eta Juan Luis Maizak (Sakana Triatloi Taldea) 22. postua egin zuen 1:47:32ko denborarekin. Gipuzkoako Duatloi Motz Txapelketa barruan dago kokatuta froga hau.

Aizkora

Resanok ezin

Urrezko Aizkoran ez da ezustekorik izan, faboritoek aurrera egin dute. Aurreko larunbatean Jexuxmari Mujikak eta Luis Txapartegik lortu zuten helburua eta igandean Julen Kañamaresek eta Xabier Zalduak. Azkeneko norgehiagokak ikusgarriak izan dira, maila dagoen seinale. Mujikak eta Txapartegik irabazi zuten kanporaketan parte hartu zuen dorrobarrak.

AIZKORA ESKOLAKOAK LANERA

Etxarri Aranazko Elkartasun Egunaren egitarauaren barruan, larunbatean, apirilaren 23an, Aizkora eskolaren erakustaldia izango da plazan, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara.

Areto futbola

Magnak galdu egin zuen Jaenen

3-2ko emaitzarekin laugarren postuari heltzeko aukera galdu zuen. Imanol Arregiren taldea lehen minutuetan aurreratu bazen ere ez zen eroso egon partiduan zehar. Berdinketarekin Jaenek indar gehiago hartu zuen eta horrela etorri zen hirugarrena. Arregik aldaketa bat egin zuen taldea moldatze arren baina arriskua sortzea kostatzen zitzaion eta nahiz eta azken segunduetan Magnak gehiago estutu, ezin izan zuen garaipenik lortu. Lehen mailako areto futboleko liderra Inter Movistar da (80 puntu). Magna Gurpea 6. (47 punturekin). 29. Jardunaldia Aspil Vidalen kontra izango du Magnak igandean bertan, apirilaren 24ean.

Kiroldegia

Altsasuko Kirol Elkarteko Bazkideen Batzarra

Altsasuko Kirol Elkarteak batzar batera deitu ditu bazkide guztiak apirilaren 28rako, osteguneko, Iortia Kultur Gunean eta arratsaldeko 19:30ean. Gaien garrantzia ikusita bertaratzea eskatu du zuzendaritza taldeak.

Gaiak:
-Hauteskundeen zerrenda
-Galde-eskaerak

Futbola

PREFERENTE MAILA 1. Multzoa
8. JARDUNALDIA

INFANZONES 4-LAGUN ARTEA 2
Bertakoen garaipen argia. Lehen zatian Lagun Artea izan zen jaun eta jabe, partidua berdinketara iritsi zen arte. Lagun Artearen defentsan arazoak izan zituzten eta hirugarren gola iritsi zen. Bigarren zatian lakuntzarrek bertakoa estutu zuten baina partiduak itxura txarrena hartu zuenenean, laugarren gola iritsi zen. 3 puntuak Obanosekoendako geratu ziren.

ETXARRI 1-URROZTARRA 2
Bisitarien garaipena San Donatoren oinpean. Etxarrik hartu bazuen gidaritza 14. minutuan etorri zen urroztarraren lehenbiziko gola eta handik gutxira Xabatek berdinketa jarri zuen markagailuan. Arbitroak Xabat bera handik gutxira kaleratuko zuen eta Etxarri 10 jokalarirekin geratuko zen. Bigarren zatian bi taldeak berdintsu aritu ziren baina urroztarra izan zen bigarren gola sartu zuena.

Sailkapena>>
1. Gares ..... **60 puntu**
4. Etxarri Aranatz ..... **46 puntu**
6. Lagun Artea ..... **41 puntu**

Asteburuko jardunaldia:
ETXARRI ARANATZ-ERROTXAPEA
(Apirilaren 24ean, igandean, 17:00etan, Etxarri-Aranatzen)
LAGUN ARTEA-GARES
(Apirilaren 23an, larunbatean, 16:15ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA 3.multzoa
28.JARDUNALDIA

ALTSASU 3-AURRERA 2
Hasiera batetik altsasuarrak hasi ziren agintzen eta partidua entretenigarria izan zen oso. Lehen minutuetan etorri zen lehen gola. Bigarren zatian Aurrerak zerbait gehiago eman zuen baina azken unean izan zen liskar baten ondorioz talde bakoitzeko jokalari bana kanporatuak zain ziren. Azken minutuetan altsasuarrak hobeak izan ziren eta irabaztea lortu zuten.

Sailkapena>>
1. Lezkairu ..... **72 puntu**
9. Altsasu ..... **32 puntu**

Asteburuko jardunaldia:
MENDILLORRI-ALTSASU
(Lezkairun, apirilaren 24ean, igandean, 15:30etan)

ELOMENDIKO TXAPELKETA
2.FASEKO A MULTZOA.

ZALDUA 3-EGIARRETA 1

Sailkapena>>
1. Bar Mikel ..... **37 puntu**
2. Egiarreta ..... **27 puntu**
4. Zaldua ..... **22 puntu**

Asteburuko jardunaldia:
BAR MIKEL-ZALDUA
(Egiarretak atsedena du)

Futbola

SAKANAKO FUTBOL 8 TOPAKETA

14. Jardunaldia jokoan

Igandean, 11:00etatik aurrera, Altsasuko Dantzalekun

14.jardunaldia

Dantzalekun
11:00etan Mediolanum-Etxarri Aranatz
11:00etan Tipi-Tapa-Lagun Artea
12:00etan Kaixo-Sutegi
Urdiainen
13:00-14:00 Sayas-Urdiain (Urdiain)
Atsedenean: Dantzaleku

Mendia

SAKANAKO XXVII. IBILALDIA

Ingurugiroa, euskara, festa eta kultura batuko dira Sakanako Ibilaldian

Irurtzundik abiatuko da apirilaren 30ean

Esan daiteke Sakanako XXVII. Ibilaldia, ibilaldi soil bat baino gehiago badela. Ahaleginaren araberako ibilaldi ezberdinak eskaini zituzten, hiru hain zuzen ere eta hainbat esparru azpimarratu zituzten. Adierazpen horiek guztiak asteartean Iruñean egin zituzten eskaini zuten prentsaurrekoan eta bertan, Pello Alzueta eta Mikel Goldarazena (Iratxo), Javier Fernandez (Nafarroako Kutxa Fundazioa), Ruben Goñi (Nafar Gobernuko Gazteria eta Kirol) eta Koldo Aldaz (Nafarroako Mendi Federazioa) bildu ziren. Sakanako Ibilaldiaren helburuak ezberdinak dira, besteak beste, naturareriko errespetua, birziklatzea, kultura, Euskal herriko erdigunea, euskararen aldeko apostua eta mendizaletasuna.

Naturarekiko errespetua

Irurtzun eta inguruko herriak, mendiak eta paisaiak ezagutzeko aukera paregabea dago. Horregatik partaide guztiei naturarekin gozatzeko baina aldi berean natura zaintzeko eskatzen zaie.

Birziklatzea

Gai honi antolakuntzak garrantzia eman nahi dio eta horregatik zaborrak ez nahastea eskatzen dute. Zabor bakoitza bere ontzian kokatzera gonbidatu nahi ditu partehartzaileak. Garbia dagoena garbi utzi behar delako.

Kultur ondarea

Ibilaldian zehar hainbat leku esanguratsu ikusteko aukera izango da. Orraregi gaztelua,1512an Gaztelako ejerzitoa hortik sartu zen Iruñerrira. Euskal Herriko Erdigunea, leku ikusgarria eta Andia mendizerran kokaturik dagoena. San Donato baseliza, 1.495 metrotan kokatua. San Migel baseliza, leku oso garrantsitsua euskaldunentzako eta Teodosio de Goñiren bizilekua zenbait urtetan. Larrazpil trikuharria, Goldaratz herria eta Goldaratzetik Latasara errekuperatu den ibilbide zaharra, Trinitate baseliza eta beste hainbeste leku.

Ruben Goñi, Pello Alzueta, Koldo Aldaz, Mikel Goldarazena eta Javier Fernandez.

Euskararen aldeko apostua

Ibilbide honetan Iratxok euskara bultzatu eta erabilera sustatu nahi du. Euskarak gizartean behar duen lekua aldarrikatu nahi dute antolatzaileek.

Mendizaletasunaren festa

Ibilaldia ez da konpetitiboa, beraz mendizaleen festa moduan ere har daiteke. Aukera ezberdinak daude eta partaide bakoitzak hiruretan egokiena aukeratu dezake.

Ibilaldiak Irurtzun du abiapuntu, Atakondoa ikastetxeko frontoia eta helmuga leku Foru Plaza. Ibilbidean zehar hainbat hornidura eta kontrol lekuak izango dituzte partaideek. Hiru ibilbide ezberdin prestatu dituzte eta aukera ezberdin hauekin jende gehiagok gozatzea espero dute.

Ibilbideak

Ibilbide Luzea
Distantzia: 54km
Desnibela: 3.388 m
Irteera ordua: 6:00etan

Ibilbide Motza
Distantzia: 27,5 km
Desnibela: 1.344 m
Irteera ordua: 7:30ean

Ibilbide Txikia
Distantzia: 14km
Desnibela: 736 m
Irteera ordua: 9:30ean

Ibilbide luzea, 14 Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuitoan sartu da. Izen emateak apirilaren 27ra arte egin daitezke www.iratxoelkartea.com edo www.zirkuitoa.com helbideetan (12€) eta ibilbidearen egunean bertan (15€). Langabeek egunean bertan izena emanda 5€ ordainduko dute. Ibilbide txikirako iratxomendi@gmail.com posta elektronikoan edota egunean bertan 4€ ordainduta.

Amaitzerakoan Irurtzungo plazan festa polita antolatuko dute eta auzatea egongo da. Bertan lagunekin egoteko momentua izango da eta esperientziak trukatzeko unea ere bai. Orokorrean, antolatzaileen esanetan, gozatzeko egun eder bat izango da.

SAKANDARRON DEIADARRA!!

MANIFESTAZIOA
Apirilak 23 larunbata
20:00etan
Etxarri Aranatz

ATXIKIMENDUAK

• LAB.
• ELA.
• EHNE.
• EH Bildu.
• Geroa Bai.
• Sortu.
• Aralar.
• Irurtzungo Alkatea: Aitor Larraza.
• Arakil-Uharteko alkatea: Ainara Ayestaran.
• Lakuntzako alkatea: Patxi Razkin.
• Arbizuko alkatea: Carmele Marañon.
• Etxarriko alkatea: Eneka Maiz.
• Bakaikuko alkatea: Egoitz Urriza.
• Urdiaingo alkatea: David Oroz.
• Ziordiko alkatea: Patxi Bengoetxea.
• Euskal Herrian Euskaraz.
• Bilgune Feminista.
• Mirentxin.
• Etxarriko Gazte Asanblada.
• Arbizuko Gazte Asanblada.
• Bakaikuko Gazte Asanblada.
• Iturmendiko Gazte Asanblada.
• Urdiaingo Gazte Asanblada.
• Olaztiko Gazte Asanblada.
• Kitzika.
• Amnistia eta Askatasunaren aldeko eta Errepresioaren kontrako Mugimendua.
• Etxerat.
• Ernai.
• Sostengu Taldea.
• Etxarriko Udal Batza.
• Udaberri Elkartea.
• Karrikestu Elkartea.
• Bertso Eskola.
• Zanpantzarra.
• Etxarriko Futbol Taldea.
• Txui-Xoo arte martzialen taldea.
• Zorri Azoka.
• Sakana Bizirik kirol taldea.
• Etxarriko lokaleko musikariak.
• Gorka Verdugo txirrindularia.
• Aritz Munarriz mendi-lasterkaria.
• Maider Ansa (abeslaria).
• Eneko Lazkoz (bertsolaria).
• Joseba Beltza (euskara teknikaria).
• Goizeder Beltza (aizkolaria).
• Gatillazo punk taldea.
• Mikel Mundiñano (Tximeleta).
• Fran Urias (Hesian).
• Xabier Aldaz (Kaotiko).
• Juanpa Agirre (musikaria).
• Luisillo Kalandraka (Vendetta).
• Pello Reparaz (Vendetta).
• Daniel Sanz "Pintxo" (Egurre).

kultura >>

KULTURA PLAN PARTE HARTZAILEA: Kultura Zuzendaritza nagusiak kultura plan anitza eta parte-hartzailea egin nahi du. Eskualdekako bilerak eginen dira. Irailarne 12 eta 30 artean, bat Irurtzunen.

"Sakana maitiak gure lurrari buruz hitz egiten du"

Urte bateko lanaren ondoren *Sakana Maitia* ikus-entzunezko proiektua plazaratu dute

Erkuden Ruiz Barroso

Sakana maitia Gartzia Ximenez, Amalurra eta Amaia da; baita lurra, lainoa eta euria bada ere. Baina batez ere Sakana maitia izaki mitologiko, historia eta istorio guztia horiek batzen dituen abesti bat da. Baita bideoklipa eta dokumentala ere. Iñigo Muñoak duela hamar urte Sakana maitia abestia sortu zuen. Ahaztuta zeukan, baina zerbait desberdina egiteko nahia sortu zitzaion: "Arreboterekin runba katalana abesten dut. Zerbait desberdina egin nahi nuen". Abestia Manex Albira ekoizleari erakutsi zion eta berak landu zuen orain dela urte eta erdi inguru. "Kasualitatez izan da dena. Gauzak gertatuz joan dira. Ez dugu ezer antolatu". Hasieran abesti bat zena, ikus-entzunezko proiektu handi bat bihurtu zen.

Sakana maitia abestia prestatu ondoren irudiak behar zituen. Oier Albiztur bideoklipa egiteko zuzendari lanetan jarri zen eta Asier Beltzaren laguntza izan zuen. Ez ziren bakarrik egon, izan ere, berrehun bat pertsonek parte hartu dute bideoklipean: "proiektua azaltzen genien eta jendea parte hartzeko prest zegoen". Urte bateko lana izan da. "Oso gogorra izan da. Baina oso polita ere. Gure arbasoez hitz egiten du, nire aitona-amonez. Oso berezia izan da". Sakana barna grabatu dute, Sakana osoa erakutsi nahi zutelako: Urbasa, San Pedro, Irurtzun, Aralar, Etxarri Aranatz, Lizarragabengoa...

Emanaldiak

Urte bateko lan "gogorraren" ondoren akabera jarri zioten proiektuari *Sakana maitia* Etxarri Aranazko eta Irurtzungo kultur etxeetan emanaldiekin. "Hasierako urduritasuna nuen, baina gogoekin erakutsi nuen Sakana maitia". Emanaldietan dokumentala ikusi zen, ondoren Hi debeik bi abesti jo zituen eta, ondoren, elkarrizketa sorta bat jarri zuten. Bideoklipean parte hartu zutenei haiendako *Sakana maitia* zer zen galdetu zitzaien. Ondoren, bideoklipa ikusi zuten, eta, despeditzeko, *Sakana maitia* abestu zuten. Etxarri Aranatzen Altsasuko Erkundego Ama abesbatzarekin batera abestu zuten abestia. Jendea "oso pozik" gelditu zen. Altsasun ***maiatzaren 20an*** eginen dute emanaldia. Gainera, ez dute proiektua Sakanan gelditzea nahi. "Landa etxekoek esan ziguten hau erakutsi behar dugula, Fiturrera eraman, eta abar. Ahalik eta jende gehienarengana iristea nahiko genuke".

Dokumentala

Kontatu "beharreko" historia eta istorioak erakusten dira bideoklipean. Ez dute gidoirik behar izan, abestia zer kontatu esaten baitzuen: "abestiak Gartzia Ximenezi buruz hitz egiten du, Amaiari buruz, Amalurra eta lurrari buruz, lainoari buruz... Abestiak dena esaten zuen". Gainera, gehigarri bezala, historia kokatu nahian, dokumentala egin dute; jendea historia "lekuan eta denboran" kokatzeko balio duela azaldu du Muñoak. Altsasuko Memoriako Amaia Urkijok, Nafarroako Fusilatuen senideen elkarteak, Joseba Asiron historialaria eta Iruñeko alkateak eta Jose Mari Elgorriaga historialariak parte hartu dute dokumentalean. "Oier Albizturren aitonen erailketari buruz jakin nuenean kontatu behar genuela pentsatu nuen".

Sakanak "holako" ikus-entzunezko produktu bat behar zuela azaldu du Muñoak. Beste hainbat lekuetan turismora bideratutako material asko dagoela esan du Muñoak, hemen, aldiz, ez zegoela ezer nabarmendu du: "holako zerbait behar genuen. Proiektuak gure historia azaltzen du, gure lurrari buruz hitz egiten du". **+www.guaixe.eus**

Akordeoilarien biltzarra

Akordeoia sustatzeko festak arrakasta izan zuen

Nafarroako Akordeoilarien Eguneko anfitrioia, Enrike Zelaia, pozik dago igandeak eman zuenarekin. Sei merinaldeetako ehun bat akordeoilari elkartu ziren Altsasun. Goiz-goizetik iritsi ziren batzuk, lagunekin gosaltzeko hitzordua zutenak. Eguerdirako zuten hitzordua. Alkatearen agurraren ondoren Altsasun barna kalejiran ibili ziren. Euren doinuekin Altsasu alaitu zuten akordeoilariek. Gainera, kalejirarako indarra izateko ibilbidean hiru pintxo-potez gozatzeko aukera izan zuten. Berrikuntza hori parte-hartzaileek gogoz hartu zuten. Burunda pilotalekuak adiskidantza bazkaria hartu zuen eta mahaiaren bueltan 163 pertsona izan ziren eseri zirenak.

Egunari Zelaiak egindako bigarren ekarpena arratsaldeko jaialdia izan zen. 15 emanaldi izan ziren eta akaberan akordeoilari guztiek batera *Agur, Jaunak* joz despeditu ziren. **+www.guaixe.eus**

Kontserbatoriotik kultur etxera

Larunbatean, 19:00etan, Olatzagutiako kultur etxean

Pablo Sarasate kontserbatorioko bost akordeoi ikasleek kontzertua eskainiko dute bihar. Ikasketa prozesuaren maila desberdinetan ari diren bost akordeoilari izanen dira eszenan, haien artean Nahia Elortza Macias eta Ainhoa Quintana Beraiz.

+www.guaixe.eus

bazterretik

Argiñe Berastegi Lizarraga

Artista da inork behar ez duena sortu eta horren nahia pizten duena

Bilboko Guggenheim Museoan otsailaren 26tik lastailaren 2ra ikusgai izango dugu Andy Warhol artista estatubatuarraren "itzalak" deituriko seriea. Bilbora hurbildu eta erakusketa hau bisitatzeko gonbidapena luzatzen dizuet.

Margolari, idazle, zinema-zuzendari eta Pop Art-aren aitzindari izan zen Andy Warhol. Marilyn Monroe, Mao Zedong, Elvis Presley eta beste pertsonaia ospetsu batzuen serigrafiazko erretratuak sortu eta behin eta berriz errepikatu zituen, irudi hauek ikono bilakatu zirelarik. Warholek berak esana da makina bat izatea eta makina batek bezala pintatzea gustatuko litzaiokeela.

Kontsumo kultura, marka komertzialak eta produktuak izan ziren Pop Artearen gai nagusiak. Gerra-osteko garaiko kulturak bultzaturik hainbat artista artea herriari hurbiltzeko nahiarekin edozein kontsumo-produktu edo eguneroko objektuak artelan izan zitekeela aldarrikatzen hasi ziren. Garai hartako pentsamolde horren isla Andy Warholen "Campbell" zopa lata ospetsua da.

Agian, ideia honekin 1978an Andy Warhol, bere tailerreko itzal batetik abiatu zen irudi ezberdinak sortu eta mopa batekin margotutako mihiseetan serigrafiatzeko. Modu honetan, Guggenheimen ditugun 102 koadroak sortu zituen. Warholek abstrakzioaren inguruan egindako saiakera jasotzen da, beraz, museoan.

Altsasutik Ereñozura bertsotan

Zortzi bertsolari izan ziren Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan parte hartu zutenak ostiralean. Lehen fasean gai orokorrarekin, lau oinekin eta hitza emanda bertsoak osatu zituzten. Ariketa horien ondoren bina leitzar eta altsasuar sailkatu ziren bigarren faserako: Xabat Illarregi, Joanes Illarregi, Idoia Granizo eta Ekain Alegre. Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako txapela bigarrenez jantzi du Joanes Illarregik. Berak eta Xabat Illarregik Nafarroa ordezkatuko dute Euskal Herriko eskolartekoan, garagarrilean 4an.

Shakespeare, umorez

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiako kultur etxean

Malaje solo konpainia andaluziarrak *Mucho Shakespeare* komedia ekarriko du. Ingalaterra migratutako bi komiko andaluziarren pasadizoak kontatzen ditu antzezlanak. Biek William Shakespeareren Londongo Globe Theatreren edaritegian zerbitzari lana opatuko dute. Antzezpenen ondoren, denek alde egin dutenean, zerbitzari-aktoreak eszena-tokira igo eta, ingelesez jakin ez arren, euren modura berrinterpretatzen dute lehenago ikusi dutena, ederki pasatuz.

Biek ez dakitena da segurtasun-kamerak grabatzen ari direla. Bakarren batek euren Shakespeareren obren antzezpen "dorpeak" Interneten ikusgai jarriko ditu eta jendearen jakin-mina sortuko dute. Antonio Blanco eta Jose Antonio Aguilar aktoreak jokatuko dute antzezlana.

+www.guaixe.eus

Txistua, eta gehiago

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Txistulariak, gitarra, baxua, metal boskotea, perkusioa, kantariak, dantzariak... horiek eta gehiago elkartuko dira Burundar Txistulariak taldeak antolatutako kontzertuan. *Urtez urte* izena eman diote emanaldiari. Juan Pablo Urizar taldekideak azaldu digunez, horrekin "urtez urte, lan egiteari ez diogula utzi adierazi nahi dugu".

Kontzertuaren izenburuak, aldi berean, azken bi-hiru mendeetan izan diren txistulari guztiak gogoan izan nahi ditu. Haiekiko begirunez, Zelestino Pozueta Galartza olaztiarraren pieza bat joko dute bihar. "Ahaztuta ditugun txistulari mordo bat. Ia-ia haien lanez eta ondareaz baliatzen ari gara. Hortik pixka bat jaso eta harekin segitzeko nahia dugu". Beraz, txistulariak izan dira, daude eta izanen dira.

Emanaldiaz

Taldearen bosgarren kontzertua da biharkoa. Urizarrek azaldu digunez, "emanaldi honekin saiatzen gara jendeari adierazten txistuarekin kalejirak eta festak alaitzeaz aparte bestelakoak egin daitezkeela. Txistua asko garatu da. Joan den urtean Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin jo genuen. Txistua edozein musika tresnarekin batera jo daiteke gaur egun. Sonorizazio onarekin, beste musika tresnen laguntzarekin, halako kontzertuetara etortzen den jendea harrituta ateratzen da".

Emanaldia 25 bat txistularik eskainiko dute. Haietatik 14 bat dira Burundar Txistulariak taldekoak. Metal boskotea, perkusioa, Burlatatik eta Gasteiztik heldu diren lagunak dira. Gitarra eta baxua...

Errepertorioan 1556 urtetik gaur egunera arteko obrak izanen dira entzungai. "Pantxoa eta Peioren kantu baten moldaketa egin dugu. Gurekin batera Itziar eta Erkuden Flores ahizpek kantatuko dute. Moldaketa Karlos Sanchez taldekideak egin du. Aurretik ere halakoak egina da. Moldaketak egiteaz aparte, konpositorea ere bada. Bere obra bat ere joko dugu". Etorkizuna dantza taldeko dantzariak izanen dira, ere, baina ez da herri dantzarik izanen. "Erritmoak aldatzen dituen dantzak, habanerekin, baltsekin... berritzen". Altsasuko dantza eskolakoak ariko dira eszenan.

+www.guaixe.eus

Egurrezko eta banbuzko burutazioak

Maiatzaren 8ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Txefo Mendezek *Joan etorriko bidaiak* erakusketa zabaldu zuen herenegun. "Nire egur langintzaren 25 urteetan emandako pausuen errepasoa da erakusketa". Errefuxiatuek egiten dituzten joan-etorriei ere egiten die aipamena. Tailerrean zituen obrak dira ikusgai daudenak. Erdian egurrez egindako eskulturak. Eskuineko paretan egurrez eta banbuz egindako koadroak. Eta ezker paretan, Mendezen idatziekin egindako argazki muntaketak hartzen dituzten koadroak.

Hainbat zur motekin egindako totem modukoak (pertsonen eta animalien irudiak) eta bestelako lan abstraktuagoak daude ikusgai, "nire burutazioak". Mendezek azaldu digunez, egur lanketa tradizionala ikasi zuen, gubiekin. "Egurra bizirik dago. Izugarria da. Sentsazio eta irakurketa asko ditu. Burnia moduko beste material batzuek ez didate ezer esaten".

Horregatik, bere sortze prozesuan apenas dago aldez aurreko marrazkirik edo zirriborrorik. Lantzean sortzen dira "bere burutazioak". Eskulturak tinturekin, zerekin eta olioekin tratatzen ditu. "Egurraren arima ikustea maite dut. Denek poro irekia dute, egurrak bizirik segitzen baitu". Bukatu gabeko eskultura bat ere badago, "jendeak prozesua nolakoa den ikus dezan".

Banbua ere Mendezendako lehengaia da. Baserritarrek, bidaiek eta ikerketak eman diote banbua lantzeko jakituria.

Lautada gero

Sortzaileak ezker paretan, erakusketako liburuan dauden, "bidaiari zahar baten abenturak" jaso ditu. Bere bizi filosofiaren berri ematen du Mendezek koadroetan eta liburuan. Azken hori salgai dago. Ale bakoitzeko euro bat Lautada gero elkartearendako izanen da. Arabako Lautadan errefuxiatuen alde lan egiten duen taldeko kide da Mendez. Helburu berarekin, erakusketan te poteak salgai izanen dira.

+www.guaixe.eus

bazterretik

Juankar Lopez-Mugartza

Euskararen egoera Sakanan diktaduraren garaian

Apirilean gaude oraindik, Errepublikari loturiko hilabete euritsuan. Askatasunaren hilabetea. Francoren Estatu Kolpearekin batera Errepublika egunak bukatzeaz aparte, zoritxarra eta beldurra hedatu zen bazter guztietan. Euskararen alorrean ere bai. Izan ere, Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntzak eta ikastolak bultzatzen zituen Emakume Abertzale Batzak bere jardunari bukaera eman zioten eta euskararendako gau luzea iritsi zen.

Hamahiru urte pasa behar izan ziren harik eta 1949an Nafarroako Foru Aldundiak euskara ikasteko klase batzuk eratu zituen arte. Urte batzuk geroago, 1957 urtean, "Euskara Sustatzeko Saila" sortu zen Diputazioan. Hauxe da urte hartako azaroaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean irakur zitekeena: "*Euskararen alde Diputazioak jarri duen sail berri ontan lan egiten dutenak, abenduaren lendabiziko hamabost egunetako jai egunetan (igandeetan) Irañetatik asi eta Urdiain bitarteko erri guzietako umetxoak esaminatuko dituzte...*" Eta gaineratzen zuten: "... eta euskera mintzatzen umetxo guziei sari ederra emango ere." A! Zeinen ongi, opariak eta guztiz!

Umeen Deia aldizkarian lan hauen berri eman zuten. Han esaten zenaren arabera, Sakanako haurrak hiru taldetan banatu zituzten haien euskara jakituria mailaren arabera. Lehenengo taldean doi-doi euskara ulertzen zutenak; bigarren taldean, gutxi hitz egiten zekitenak eta hirugarren taldean oso ongi hitz egiten zutenak. Sailkapen hura kontuan harturik, hauexek izan ziren herriz herri, lortu ziren emaitzak:

Arbizu: 145 haur eta denak euskaldun oso, denak bikain aritzen zirela euskaraz.

Arruazu: 41 haur, denak euskaldunak, 30 gutxi zekitenak, 3 erdizka, 8 oso ongi.

Ergoiena: 167 haur eta horietatik 107 oso ongi hitz egiten zutenak.

Etxarri Aranatz: 325 haur, 37 gutxi zekitenak, 71 erdizka eta 152 oso ongi hitz egiten zutenak.

Irañeta: 46 haur, 14 haur euskaraz zekitenak, baina doi-doi (lehenengo taldekoak).

Lakuntza: 135 haur gutxi gorabehera, 60 erdizka zekitenak eta 42 oso ongi.

Lizarragabengoa: 19 haur eta denak euskaldun osoak.

Uharte-Arakil: 100 haur, 6 gutxi zekitenak, 4 erdizka eta 90 ongi hitz egiten zutenak.

Urdiain: 78 haur eta, hauek ere, euskaldun peto-petoak.

Bilketa, egia esan, ez zen oso sakona eta sistematikoa izan; adibidez, Burundako herri gehienak kanpoan gelditu ziren, beste huts nabarmenak nabaritzen dira zerrenda honetan... ez ote zegoen jada haur euskaldunik herri horietan? Ez dakigu, baina, dena dela, gaur egun gauzak erabat aldatu direla esan dezakegu. Garai haietako beldurrak alboratu dira eta zerrenda honetara herri asko batu dira. Euskara eskoletan sartzearekin batera, indartu eta hedatu da. Errepublikaren hilabetean gaude eta euskara loratzen ari da udaberria bezala.

Gasteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 45%	euria: 90%	euria: 67%	euria: 13%	euria: 10%	euria: 18%	euria: 35%
Min: 6 Max: 15	Min: 7 Max: 12	Min: 6 Max: 9	Min: 2 Max: 10	Min: 2 Max: 14	Min: 4 Max: 16	Min: 7 Max: 14

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	22	4.5	15.4
Etxarri A.	21.5	3.1	13.8
Altsasu	21	5	23.4
Aralar	13.7	0.4	11.7
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
30	6	13	21

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com
KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea
Acrylcolor SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa
beleixeguaixe
APIRIBILEKO SARIAK:
1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea: 2 sarrera.
2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea: 2 sarrera.
Ekain berri
AQVARIVM
IRURTZUN XOTA E.S.
CAMPING ARTAZA
lacturale
gaztezulo

>>11 galdera

Ekhi Congil Mendiola

Monoziklista

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

1. Zergatik monozikloa?
Duela hiru urteko sanferminetan Bosquecillon jartzen dituzten postuetan ikusi nuen bat eta arreta eman zidan. Ikas nezakeela pentsatu nuen eta urtebetetzerako gutxi gelditzen zenez opari aurreratu bezala hartu nuen. Hasierakoak nahiko merkeak izaten dira eta probatzeak merezi du. Hasieran ez nekien horrenbeste gustatuko litzaidakeenik.

2. Erabiltzen nola ikasi zenuen?
Hasierako gomendio bezala esan zidaten poste bati bueltak ematen hasteko. Gero pixka bat solte ibiltzen hasten zara eta ongi sentitzen zarenean saiatzen zara pausu batzuk bakarrik egiten. Burugogor jarri behar zara eta, azkenean, lortzen duzu. Ez zara askotan erortzen. Hasieran agian baina aurreraka erortzen zarenez zutik bukatzen duzu, beraz, minik gabe. Bataz besteko 15 ordu behar dira monozikloan gustura sentitzeko. Pertsonaren arabera ere bada.

3. Aurretik monozikloaren berri zeneukan?
Ez nuen inor ezagutzen, ezta zer egin zitekeen ere. Niretako ibiltzeko tresna bat zen.

4. Nolako entrenamenduak egiten dituzu orain?
Talde bat ezagutu nuen eta Gasteizen urtero topaketak egiten dira. Hasieran hurbildu nintzen eta jendea gaian jantziagoa zegoen. Gero mendian ibiltzeko aukera zegoela jakin nuen eta mendirako monozikloa erosi nuen. Gero saltoak egiteko monozikloa. Trikimailuak egiten hasi nintzen, mendia jaisten...

5. Beraz, monoziklo mota desberdinak daude?
Bai. Adibidez distantzia luzeetarako direnek gurpil oso handiak dituzte, 36 hazbetekoak edo, gero mendian ibiltzekoak daude ere, gogorragoak dira. Gero kalean ibiltzeko direnak eta trukoak edo saltoak egiteko. Artistikoak ere badira, irristaketa artistikoan bezala baina monozikloarekin koreografiak egiten dira. Nik hiru monoziklo ditut. Bat utzita daukat eta beste bat saldu nahian. Motaren arabera prezio desberdinak dituzte, baina gutxi gora behera 60 euro balio dute. Garestienak 300 edo 400 euro.

6. Eta monozikloarekin denetarik egiten duzu?
Bai. Orain adibidez hockeyan jokatu behar gara. Azken aldian mendian ibiltzen naiz gehien bat eta trukoak egiten ditut ere. Elurretan ere ibili gara. Sakana bi aldiz zeharkatu dut Bizikleta Egunean. Lehenengo aldia zaila izan zen, bigarrena askoz hobe.

7. Ikastaroak egin dituzu?
Gehienok bakarrik ikasi dugu. Baina gero elkartzen gara eta bakoitzak bere estiloa dauka... Nik zerbait ikasi badut saiatzen naiz beste bati irakasten. Gauza berriak frogatzen ditugu. Lagun batek ikastaroak ematen ditu eta ikastaroan daudenek askoz azkarrago ikasiko dituzte gauzak egiten. Gerta liteke zuk gauza bat ikastea eta modu zailenean ikasi izana.

8. Non entrenatzen duzu?
Beasainen. Lagun talde bat gara. Bertan lagun bat, Aritz Zeberio, elkarte bat sortzen ari da eta toki gehiago dago. Gauzak egiteko aukera gehiago. Formalizatzen saiatzen ari gara.

9. Eta zenbat denbora entrenatzen duzu?
Ia egunero entrenatzen dut. Entrenamendu gogorrak egin ditzaket baina egun batean ez badut gogorik ezer egiteko ez dut egiten. Ez daukat entrenatzailerik.

10. Txapelketetan parte hartu duzu?
Bai. Aritzek, Munduko txapelketa antolatu behar du Donostian agorrilerako. Orekan bizi naiz taldea sortu du ere eta haiekin ikustaldiak eta ikastaroak ematen ditu. Txapelketetan parte hartzea libreada. Udan Italian Europako txapelketan egon ginen bi astez. 70 hoberenen artean gelditu nintzen, azken fasera iritsi nintzen. Orain dela bi urte Montrealen izan zen Munduko txapelketa eta aurten Donostian. Hain gertu izanda aukera ezin hobea da.

11. Zer lantzen da monozikloan?
Esaten dutenez dena lantzen da. Oreka argi dago. Baina dena lantzen da: hankak ibiltzeko, eskuak oreka mantentzeko, salto egiteko gorputza, bizkarra mugitzeko...

Irakasle koadernoak
Irakaslea agenda
Eskatu zurea!
gk KOMUNIKAZIOA
Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

Sakanako
ekonomia zirkularra

Guaixe fundazioaren kide diren 1.500 bat sakandarrek **Beleixe-guaixe Txartela** eskura dute, ibarreko ekonomian eragiteko tresna da.

Guaixe astekaria, Beleixe Irratia (FM 107,3) eta **www.guaixe.eus** hedabideak mantentzen laguntzen duzu

1. Guaixe fundazioko kide egin

2. Establezi-menduetan abantailak

Sakanan kontsumitzea sustatzeko, Beleixeguaixe Txartelak ibarreko 90 establezimenduetan abantailak eskaintzen ditu.

3. Herri biziak

Ibarrean kontsumituz kaleak eta herriak biziz betetzen ditugu eta komunitatea sortzen dugu: Sakana.

Lortuko dituzun abantailak

- Diru ekarpenaren araberako zerga pizgarria (%80ra artekoa).
- Guaixe astekaria ostiralero buzoian.
- Bazkide zozketetan parte hartzea hilabetero.
- Diseinu zerbitzuan %5eko deskontua.
- Eskeletan %10eko deskontua.
- Zorion agurretan deskontua.
- 90 bat establezimendutan deskontuak eta abantailak.

Fundazioko kide egin nahi?

1. www.guaixe.eus/harpidetza web orrian egin zaitezke.
2. Guaixe fundazioaren Altsasuko bulegora hurbilduz.
3. 948 564 275 edo 948 562 107 telefonoetara hots eginez edo zorion@guaixe.eus e-posta helbidera idatziz.
4. Zure establezimendua txartelaren eskaintzara batu nahi baduzu 948 564 275 edo 948 562 107 telefonoetara hots egin edo idatzi publi@guaixe.eus helbidera.

GUAIXE.EUS

Kanpaina Berezia. **Aurreratu zure**

Udarako Erreserbak

%8-ko dtua. **IRLETAN**

%10-eko dtua. **KOSTAL DEETAN**

%15-eko dtua. **EUROPAKO ZIRKUITUETAN**

VIAJES EROSKI BIDAIAK
Zubeztia,1. Altsasu
948 564 335 | Faxa: 948 468 986
v0874@viajeseroski.es

"Haientzat onena nahi dut"

"**Jakina,** orain,
DESKONTURIK handienak,
ESKAINTZARIK onenak, haurrak **DOAN**"...

Erreserbak: apirilak 1etik eta maiatzak 31ra bitartean, maiatzak 1etik urriak 31ra arte bidaiatzeko.

www.escaparateviajes.es
www.viajeseroski.es

EROSKI viajes
¿Sueñas? ¡Vuela!